



URTEKARIA DEBAGOIENA 2013



Gipuzkoako bankete-jatetxe onenaren Mas Gastronomía 2009 saria.



250 lagunentzako jantokia
Gustua eta luxua denon eskura

LASA jatetxea

Ozaeta jauregia
Tel.: 943 76 10 55
BERGARA
www.restaurantelasa.es
reservas@restaurantelasa.es



Zorionak eta Urte berri on!



Aitor Izagirre

Goienako presidentea

Zuen ekarpena, denok irabazteko

25 urte bete berri dira *Arrasate Press* sortu zela. Herri hedabide eredugarri haren helburuei eusten die Goienak: euskara plazaratzea; normalizatzea. Eta zuen konpromisoa derrigorrezkoa zaigu helburuei eutsi eta aurrera egiteko. Ekarpen txiki bati esker, abantaila asko izango dituzu eta denok irabaziko dugu: euskarak, zuk zeuk eta Goienak.



Arantzazu Ibarondo

Oñatiko Udal Liburutegiko arduraduna

Kultura zabaltzeko ezinbesteko euskarri

Asko dago egiteko, oraindik ere, euskararen alorrean eta, horretarako, Goiena da ezinbestekoa. Gure berriak, kezkak, zerbitzuak, iradokizunak... lau haizetara zabaltzeko, herritarrengana hurbiltzeko, plataforma bikaina da. Imajinatzen duzue Debagoiena, gure herriak, Goiena barik? Nik ez. Ea, bada, lagundu ditzagun Debagoieneko euskarazko hedabideak!



Igor Arenaza

UDAKo kirol zuzendaria

Gure kirolaren bidelaguna

Gure jendartea, edozein dela esparrua, euskalduntzeko lanean diharduten talde, erakunde eta norbanakoak dira niretako jarraibide. Eta bidelagun. Goiena Komunikazio Taldea da horietako bat. Beharrezkoa da Goiena kirolarendako, euskararendako. Hala sentitzen dut nik eta hala adierazten dute debagoiendarrek ere. Lagundu, kontsumitu eta erabili ditzagun!

GOIENAK BEHAR ZAITU!

GOIENA KLUBEKO BAZKIDE EGITEKO TELEFONOA: 943 25 05 05



Monika Belastegi

Kazetaria, Goiena Kooperatibako lan bazkidea

Beste 25 urte, zuen ekarpenarekin

Zergatik da Goiena arrakastatsua? Zuengatik: erabiltzaile, ikus-entzule, irakurle eta bezerook erakusten diguzuen jarraipen, babes eta laguntzarengatik; gizarte zibil grinatsuagatik; erakundeengatik. Bertako komunikazio kooperatiba da Goiena eta lan bazkideak gara proiektuaren oinarrietako bat. Lagun gaitzazu. Premiazko dugu zuen ekarpena horretarako. Eskerrik asko!



Jose Antonio Altuna

JMA enpresako bazkidea

Lanlekue be euskaldundu daigun

Euskera da gure erreminttarik inportantiena gure asmoak herri moduen beteteko. Bestetik, euskeraren erabillerie geure lanleketan bultzetu gure dogu. Horretan lagungarri ditzugu eskualdeko euskerazko hedabideak: Goienakuek. Geure inguruen, ezagunen, enpresen... barri Goienari esker jasoten dogu. Aurrerantzien be holan izen dain, lagundu daixogun!



Olatz Pagalday

Aktorea

Gure azken lanaren berri Goienan; non bestela?

Hemen, kulturen murgilduta gabilzanondako, izan programatzaile edo izan sortzaile, ezinbesteko plataforma dira Goienako hedabideak. Kultura maite dugunondako, emaile edo jasotzaile, behar-beharrezkoa da. Lagun diezaigun. Zeinek emango du, bestela, esaterako, gure azken antzezlanaren berri? Ikusi duzu? Informazioa, Goienan.

goienakluba[™]
Euskara irabazle, denok irabazle!

DEBAGOIENA

ESPETXE POLITIKA ALDATZEKO
ESKARIAREKIN BAT

Espetxe politika aldatzeko dei ozena egin zuten milaka lagunek Bilboko manifestazioan, eta Debagoieneko ehunka herritar ere batu zitzaizkion mobilizazio erraldoiari. Aurrerantzean herri mailan lanean jarraitzeko dei egin zuten senideek.

%20

HAZI DA 'GOIENA.NET'

%20,81 hazi zen *Goiena.net* ataria iazko datuekin alderatuta. CIESen eta Analytics-en datuek zioten Goienako jarraitzaileak gehitzen doazela urtetik urtera.

ESKORIATZA

26 NAZIONALITATEETAKO
BANDEREI, ALEGAZIOAK

Eskoriatzan bizi diren 26 nazionalitateetako banderei alegazioak aurkeztu zituzkien Espainiako Gobernuak. EAJk horren gaineko mozioa aurkeztu zuen, baina auzia konpondu bitartean mahai gainean uzteko eskatu zion alkateak.



DEBAGOIENA

Errekei begira debagoiendar guztiak, ur handiengatik ▲

Gogotik bota zuen euria urtarrilaren erdialdean. Krisi mahaia aktibatzen zuten Jaurlaritzako Seguritasun Sailak. Gurean, errekek gainezka, luiziak eta errepide mozketak izan ziren. Urtarrilaren 15ean, 67 litro bota zuen Arrasaten metro karratuko.

ARRASATE

15-20 kilo kendu zizkieten
erraldoi eta kilikiei ▶

Bikini operazioa egin zuten Arrasateko erraldoi eta kiliki zaharrei. 60 kilo zituzten duela 27 urteko erraldoiek, eta 15-20 kilo inguru kentzeko lanetan hasi ziren urtarrean, haiek erabiltzea errazagoa izan dadin konpartsa kideendako. Urretxuko tailer batera eraman zituzten lau erraldoi eta sei kiliki, dietan jartzeko. Mikel Ibartzabal bergararra arduratu zen *bikini operazioa*-z; Arastusteetarako bukatu zuen lana Ibartzabal artistak.



ELGETA

Itxuraldatu egin zuten
Asentzio ◀

Itxuraldatu egin zuten Asentzio: espazio zabalagoa du orduetik hona, eta harrizko horma berria ere bai. Aldaketak nabariak izan ziren: autoen joan-etorria mugatzeko itxitura jarri zuten sarreran; *Asentzioko txaleta* deritzona Udalak erosi zuen eta bide ertzeko zuhaixkak kendu egin zituzten; lursaila garbitu eta zuhaitzak landatu zituzten; harrizko horma berria egin zuten eta Gure Borda inguratzen zuten hesia ere desagertu egin zen.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
E05 Basabe Poligonoa, 20550 ARETXABALETIA
Lehendakaria Aitor Izagirre
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal
EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500: Oñalora Lizentziaduna 31 |
132 posta-kutxa Tel: 943 25 05 05 |
Faxa: 943 25 05 00 | arrasate@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale.
Difusioa: 19.951 ale.

DEBAGOIENA 2013 URTEKARIA

Zuzendaria Eneko Azkarate.
Erredaktore burua Ubane Madera
Erredakzioa Aritz Barroso, Aitziber Aranburuzabala, Maider Arregi, Monika Belastegi, Jon Bereizbar, Jokin Bereizbar, Mireia Bikuña, Mirian Biteri, Iure Eizagire, Oihana Elortza, Arantza Ezkibel, Imanol Gallego, Irati Goitia, Leire Kortabarria, Ander Larrañaga, Ubane Madera,

Txomin Madina, Amaia Txintxuneta, Xabi Urtzelai, Zuriñe Velez de Mendizabal, Larratx Zeberio.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Maketazioa Itzi Iturbe, Imanol Soriano.
Argazkiak (sinadurarik ez dutenak) Erredakzioa, Aramaio udala, Argazki Press, Eusko Ikaskuntzako Argazki Artxiboa, Joseetxo Arantzabal, Julio Calleja, Jakunde, Imanol Soriano.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziortza Martin, Imanol Elortza.

GOIENAK ez du bere gain hartzen argitalpen honetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

HONAKO URTEKARIAREN EDIZIOA ABENDUAREN 19AN ITXI DU GOIENAK

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako
Foru AldundiaArrasateko
UdalaBergarako
UdalaOñatiko
UdalaAretxabaletako
UdalaEskoriatzako
UdalaArizuloako
UdalaAramaioko
UdalaElgetako
UdalaLeintz Gatzagako
Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz
lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

ESKORIATZA**UMEENDAKO NEGUKO ATERPEA EGITEKO LANAK EGIN ZITUZTEN**

Liburutegi zaharra egokitu zuten, umeen eta gurasoen neguko aterpe izateko. Herriko gurasoekin batera adostu zuen proiektua Udalak. O eta 7 urte bitartekoendako lokala izatea adostu zuten, eta asteburuetan zabalik egongo zela.

BERGARA**LANGABEEK LEHANTASUNA GI-632 ERREPIDEKO OBRETAN**

Aldundiarekin elkarlanean aritu ziren Bergara, Antzuola, Legazpia eta Urretxuko udalak, eta GI-632 errepideko lanak egiteko, Moyua Antzibar enpresaren konpromisoa lortu zuten: sektore horretako eskualdeko langabeek lehentasuna izatea.

ARRASATE**DEBAGOIENDARREN 'ZITADA' JASO ZUEN BERRIAK**

Debagoieneko euskalgintzako taldeek antolatuta, Berriaren aldeko jaialdia egin zuten Amaia antzokian. Ilaski Serranok eta Kike Amonarrizek aurkeztu zuten jaialdia, eta kantuan, bertsoan, antzeztan eta bizikletan ibili ziren debagoiendarrak.



ARETXABAETA ANA BOLINAGA
ALKATEA
(EH BILDU)

"Herriarrek botere politikoa berreskuratu behar dute, justizia sozialaren oinarria da"




BERGARA MIKEL ARISTI
TXIRRINDULARIA


"Lepoa luzatuko zait profesionalekin lehian, baina ez dut batere beldurrik"

**DEBAGOIENA****Bailarako emakumeak azkarrenak, korrika ◀**

Debagoieneko emakumezkoak protagonista izan ziren III. Kirolprobak herri lasterketen txapelketako sari banaketan; hala, Donostiako ekitaldian, bailarako ordezkariak zakua bete sari etorri ziren. Beteranoen artean: lehenengoa, Arantxi De La Fuente (Bergara); eta sailkapen orokorrean: lehenengoa, Itziar Aldekoa (Bergara); bigarrena, Amaia Bernal (Oñati); eta hirugarrena, Maria Rosa Agirre (Bergara).

**DEBAGOIENA****Mankomunitatearen aurrekontua, txikiagoa ▶**

Debagoieneko Mankomunitateak 11 milioi euroko aurrekontua onartu zuen 2012ko abenduaren bukaeran, 2013rako; aurreko aurrekontuan baino hiru milioi euro txikiagoa. Orokorrean begiratuta, aurten hondakinen atez ateko bilketaren ezarpena izanda, Ingurumen Sailarendako izan da diru partidarik handiena: aurrekontuaren %70, hain zuzen. Bestalde, inbertsioetarako 2012rako baino lau milioi euro gutxiago jaso ziren 2013rako.

AURREKONTUAREN BANAKETA**ELGETA****Monologo I. Mostrak arrakasta izan zuen ▲**

Ernesto Sevillak eman zion hasiera Elgetako I. Monologo Mostrari. Bigarren asteburuan, Sara Escudero eta Miguel Iribarrek hartu zuten parte. Saio guztietan Espaloia Kafe Antzokiko aretoa ia goraino bete zen eta joandako ikusleek asko gozatu zuten.

PANADERIA Y PASTELERIA ARTESANA

KONDE
PANADEROKUA



Zorionak eta urte berri on!

Burdiñate 11 Tel.: 943 76 02 57
Tokieder plaza 3 Tel.: 943 76 14 87
BERGARA

ZURICH AUTOK eskaintzen dizu:**BALORAZIO PACKA:**

Autoaren lehen hiru urteetan, berriaren % 100eko balioa mantenduko da lapurreta, kalte eta sute kasuetan, baita laugarren urtetik aurrera baloraziorako portzentaje bereziak ere.

BABES PACKA:

Gidabaimena galduz gero, derrigorrezko ikastaroaren diru-itzulketara 500 euro izango da, gehienez.

ASISTENTZIA PACKA

Istripua edo lapurreta izanez gero, ordezeko autoa 14 egunean erabiliko da, gehienez ere.

FLEXIFRANKIZIA

Sistema berri horrekin, frankizia urtean %10 murriztuko da automatikoki, ezbeharrik izaten ez bada.

GAINERA...

Zure seguruarekin familia osoarendako zerbitzu ugari izango dituzu.

Urte Berri On!



ZURICH
M^o del Mar Urrutia Negerueta

Montxon kalea 5 behe / 20560 / OÑATI
Tel.: 943 78 30 09 / 620 77 66 20
Faxa: 943 78 31 36



OÑATI
PAP EZ! PLATAFORMA DESEGIN ZEN, "ERREPRESALIENGATIK"
 Plataformako kideek izandako "errepresaliengatik" desegin zen PAP EZ! plataforma urtarrilean, sortu zenetik ia urtebetera. Ibilbidean jasotako sustengu guztiak eskertu zituen. Udal Gobernuak "biktima papera" leporatu zion.



OÑATI
LOURDES IDOIAGA
 EAJ-KO
 ZINEGOTZIA

Bere kontrako mehatxuak zituen mezu anonimoa salatu zuen Idoiak. EH Bilduk elkartasuna adierazi zion, eta OZZK "kanpaina mediatiko nahasia" salatu zuen.



ARRASATE
JOSU URRUTIA
 MUNDUKIDEKO
 PRESIDENTEA

Iaz abenduan izendatu zuten Mundukideko presidente Josu Urrutia bilbotarra. 2013-2016 Plan Estrategikoa lideratzea zuen zeregin nagusienetako bat.



ANTZUOLA
IÑAKI LETE
 URREZKO
 DANBORRA

Donostiako Klasikoa eta Euskal Herriko Itzulia antolatzen egindako lanagatik eman zituen Iñaki Lete zenari, Donostian, Urrezko Danborra.



ARETXABALETA
Duranako telefono kabina, bolo-bolo hedabideetan ◀

Debagoieneko eta Euskal Herriko mugak gainditu, eta Espainiako hedabideetara egin zuen salto Aretxabaletako telefono kabinak. Inork nola ez zekiela, azarotik urtarrilera bitartean, hildako basurde bat, barazkiak, emakumezkoen barruko arropak eta motor bat agertu ziren. Gertaera misterioitsu haien notiziek erantzun asko izan zituzten *Sustatu.com* atarian eta Twitterren, besteak beste. Intereconomiako *La Gaceta*-k ere jaso zituen.



ARRASATE
Kamioi batek istripua izan zuen Obenerrekan ▶

6,5 tonako kamioi batek istripu *ikusgarria* izan zuen Obenerreka kalean urtarrilaren 24an; betebetan jo zuen bigarren atariko etxearen horma. Kamioi gidariak kontatu zuenez, kamioia aparkatzera zihoala gertatu zen istripua. Hura aparkatzeko ondoan zegoen autoa kentzera joan zenean konaturatu zen kamioia behera zihoala. Autoa ere jo zuen kamioiak eta etxearen horma jota geratu zen. Zorionez, ez zen bestelako ezbeharrik gertatu.



ARETXABALETA
Itxura berria ekarri zuen Txapel Txinek ▲

Artxaoko (Nafarroa) klinikatik etorri, eta itxura berria zuela agertu zen Aretxabaletan Txapel Txin. Jairako gogotsu etorri zen, hori bai, eta ospakizunerako deialdia egin zuen: "Jantzi txapela guztiok eta girotu dezagun herria". Egurdiko txikiteoarekin hasi, eta arratsalde osoko egitararekin iragarri zituen Txapel Txinek, beste behin, Aratusteak, pregoia irakurrita. Txapel dotoreenari eta torrada goxoenari sariak eman zizkien.

J. Alberto Gorosabel Mendizabal doktorea



RPS: 266/13

- **INPLANTEAK** Punta-puntako teknologiarekin
- Aho zirugia.
- Ortodontzia.
- Odontologia orokorra.
- Ahoko eta aurpegiko estetika plasmarekin.
- Estetika eta hortzen zuritzea teknika bereziarekin.

Zorionak eta Urte Berri On!

Aseguruak: PADI (Osakidetza), AEGON

Tel. : 943 76 56 88

Fraiskozuri 5A, 1-D. BERGARA

20 urte baino gehiago zuekin Bergaran, eskerrik asko danoi!

2014a oparotasunez beteta izatea opa dizugu.
 Zure konfiantza izaten segituko dugun esperantzarekin eta gure zerbitzuak eskeintzen segituko dugulakoan.

EGUSKIGRAF
 inprimategia

Araxabaletako Industrialdea F-0
 Araba Ibilbidea
 20550 Araxabaleta
 Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 844
 E-mail: info@eguskigraf.com

30 urte baino gehiago zure zerbitzura

ANTZUOLA

BERGARA ETA ANTZUOLA ARTEKO LANAK HASI ZITUZTEN

Otsaileko bigarren astean GI-632 errepideko Antzuola eta Bergara arteko lanak hasi zituzten. Moyua eta Antzibar enpresek hartu zuten obra horien ardura; Antzuolako lotunea abiapuntu izan zuten, eta 25 hilabeteko lana izango dute.

OÑATI

ALOÑA MENDIKO ATLETISMO TALDEA, ONENEN ARTEAN

Oñatiko Aloña Mendi atletismo taldeak Oropesa del Marren jokaturako kirol elkartearen Espainiako txapelketan 11. postua lortu zuen. Aldi berean, Euskal Herriko lehen taldea izan zen. 50 elkartek baino gehiagok parte hartu zuten txapelketan.

BERGARA

MOJEN ORDENA DESEGIN EGIN ZUEN VATIKANOAK

Bergarako klaratarren komentuan bizi zen San Juan eta Santo Domingoren Ahizpak izeneko kongregazioa desegin egin zuen Vatikanok, "eliza-diziplina larri apurtzearen". Hainbat herrialdetatik etorritako 19 gaztek osatzen zuten kongregazioa.

OÑATI

OÑATIKO HIZKERARI BURUZKO LANA IGO ZUTEN INTERNETERA

Oñatieraz gehiago jakin gura duenak tresna baliotsua du sarean otsaila ezkerok: *Vocabulario vasco de Arantzazu-Oñati y zonas colindantes* izeneko lana igo zuten Internetera Oñatiko euskaltegiak. Udal webgunean dago eskura.



ARRASATE ANDER LASAGABASTER
ESKALATZAILEA

Ander Lasagabasterrek *Il domani* bidea eskalatu zuen, eta muturreko zailtasuna (9a) eskalatzeko gauza direnen multzoan sartu zen Arrasatekoa.



BERGARA

Udaletxe ondoan 12 metroko ikurrina jaso zuten ▲

Otsailaren 23an ikurrina aldarrikatu eta hari gorazarre egin zioten Bergarako San Martin plazan, Espainiako bandera ipintzeko "inposaketa" salatzeke. Nagusi, heldu, gazte zein umeen presentziarekin, eta bertso, txalaparta eta txistuaren doinuaren babesarekin jaso zuten 12 metroko ikurrina udaletxe ondoan. Jesus Elortza alkateak eta Ramon Mendibil 1976an alkateorde zenak jaso zuten.

DEBAGOIENA

Epaituta Korrikan presoek irudiak eramateagatik ►

Otsailaren 4an Amaia Osa, Sebas Etxeberria, Iñaki Manuel eta Joseba Garitaonandia debagoiendarrak Madrilan epaitu zituzten 2011ko Korrikan presoek irudiak eramateagatik. "Terrorismoaren apologia" egitea leporatzen zieten, eta 15 hilabeteko kartzela zigorra eta zortzi urterako inhabilitazioa eskatu zieten. Hori salatzeke eta epaituei babes erakusteko mobilizazioak deitu zituzten: otsailaren 2an, esaterako, mila bat lagun elkartu ziren Bergaran.



BERGARA

Tavex enpresaren eraikina desegiten amaitu zuten ◀

164 urtez ehungintzaren sektorean lanean aritu zen Bergarako Tavex enpresaren eraikinaren desegite lanak amaierara heldu ziren otsailaren erdialdean. 1846ko urtarrilaren 23an sortu zen Fabrica de Hilados y Tejidos de Vergara elkarteak, bi milioiko hasierako kapitalarekin; urte oparoenak Espainiako gerra ostekoak izan ziren. Desegite lanak bukatzeaz bazauden ere, otsailean oraindik salgai zeuden eraikina eta lurrak.

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7, behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 77 00 33
943 79 42 56



FELIX PAGALDAY

Zorionak eta
Urte berri on!

TXOMIN GARAJEA

Mekanika orokorra



Tailer profesionala

ZORIONAK ETA
URTE BERRI ON GUZTIO!!

IAT/ITVrako prestaketa

Negurako gurpiletan
preziorik onena gurean

Lizarraga auzoa. ANTZUOLA. Tel.: 943 78 70 77



DEBAGOIENA
CARLOS ZULUETA
OSPITALEKO
GERENTE BERRIA

Carlos Zulueta Guridi mediku eibartarra otsailaren 1a ezkeru da Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-kudeatzaile berria.

ANTZUOLA
SASIBERTSO ESKOLA LEHEN URRATSAK EGITEN HASI ZEN

Hodei Lete gazteak gidatuta, Antzuolako bertso eskola berria otsailaren 6an abiarazi zuten. Sasibertso Eskolaren helburu nagusia da herriko gazte eta umeei bertso mundua ezagutarazi eta harekin disfrutatzeko aukera ematea.

ESKORIATZA
ELKARRETARATZEA EGIN ZUTEN ATEZ ATEKOAREN KONTRA

Eskoriatza Garbia plataformak deituta, atez atekoaren kontrako elkarretaratzea egin zuten otsailaren 15ean Eskoriatzako plazan. Egun hartan bertan hasi ziren bosgarren edukiontzia aldekoak etxeko balkoietan zabor poltsak jartzten.



ANTZUOLA

Hasiera bikaina izan zuen 8 Miliak mendi lasterketak ▲

Antzuolan 8 Miliak mendi lasterketa egin zuten lehen aldiz otsailaren 18an. Arrakasta borobila izan zuen lehen edizioak: 255 korrikalari heldu ziren helmugara. Gizonezkoetan, Iker Oliverik irabazi zuen proba eta emakumezkoetan, Elena Calvilok. Lasterketa amaitzean, Jose Ignacio Garitano omendu zuten atletismoaren alde egindako lanagatik.



ESKORIATZA

Teatro Kanape egitasmoa jarri zuten martxan▶

Otsailaren erdialdean Teatro Kanape izeneko proiektu berria ezagutu genuen. Lau kidek osatu zuten: Ahinara Zubizarreta, Olatz Pagaldai eta Iraia Arzamendi eskoriatzarrek eta Ugutz Usandizaga aretxabaletarrak. Antzerki dinamizatzaile moduan aurkeztu ziguten euren burua, eta Eskoriatzako eraikinak oinarri hartuta, maiatzaren 11n hamar minutu inguruko antzezlanak bultzatzeko asmoa zutela azaldu ziguten aurkezpenean.



DEBAGOIENA

Luizi ugari izan ziren otsailean bailara osoan ▶▼


Euriteen eta elurteen ondorioz, otsailean lur-jausi asko gertatu ziren Debagoiengan. Besteak beste, lur eta harriek Aretxabaleta eta Eskoriatza arteko bidegorria (eskumako argazkia) bi bider estali zuten otsailaren 8an eta 11n; eta Aramaion, AHTko lanen lur zati batean, Cuadrovientos baserrirako sarrera ondoan, lurrak A-2620 errepideko alde bat hartu zuen hil bereko 13an.



Julian Uribeetxeberria Olalde
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Kale barria 20 • Errekalde 8 • OÑATI
Tel.: 943 78 01 54

Zorionak eta Urte berri on!



LIZKER

Tel.: 943 71 80 52

AHOLKULARIAK

Aholkularitza fiskala

• Lan aholkularitza

• Kontabilitatea

• Zerga aitortpena

Zorionak eta Urte berri on!

ARETXABAETA**UDALAK ATEZ ATEKOAREN ALDEKO APUSTUA EGIN ZUEN**

Otsailaren 21ean egindako agerraldian, Ana Bolinaga alkateak jakinarazi zuen herrian atez ateko sistema ezartzeko asmoa zutela. Dena dela, gaikako bilketa sistema nola ezarri aztertzeko Hondakinen Mahaia iragarri zuen.

DEBAGOIENA**MUNDUMIRA JAIALDIA EZ ZELA ANTOLATUKO IRAGARRI ZUTEN**

2013an Mundumirak, Munduko Kulturen Festak, etenaldia izango zuela iragarri zuten hilaren 21ean. Zortzi urteren ostean jaialdiaren ibilbidearen lehen zikloa itxi zela eta etorkizunean proiektua indartu eta oinarriak ezartzeko asmoa zutela esan zuten antolatzaileek.

3.000

SINADURA

Kaleratzeen kontra 3.000 sinaduratik gora jaso zituen bailaran Kaleratzea-Stop Desahucios plataformako Debagoieneko kideek.

ELGETA**'PETER PAN' MUSIKALAK BI ALDIZ BETE ZUEN ESPALOIA**

Elgetan ere arrakasta izan zuen Bergarako Musika Eskolaren *Peter Pan* musikalak; otsailaren 2an eskainitako bi emanaldietan bete egin zen Espaloia. Elgetarrak ez ezik, Eibarko eta Elgoibarko jende ugari ere joan zen Elgetako antzokira.

ARRASATE**MAIALEN AXPEK ESPAINIAKO TXAPELKETA IRABAZI ZUEN**

Maialen Axpe arrasatearrak Espainiako 23 urte azpiko kategoriako pertika-jauziko txapelketa irabazi zuen otsailaren 9an. Donostian jokaturako txapelketan 4,01 metroko markarekin irabazi zuen, bere errekorra onduta.

**ARETXABAETA****Urkuluk gainezka egin zuen eta soberakina bota zuen▲**

Euriteek eraginda, otsail hasieran gainezka egin zuen Urkuluko urtegiak. Hain justu, otsailaren 7an %100,51 zegoen beteta, eta soberakina botatzen ziharduen; zazpi bat zentimetroko lamina baten adinako ur-kopurua zebilen botatzen arrapala baten bidez. Euritsua izan zen urte hasiera gurean: hilabeteen 700 litro bota zuen; marka historikoa da.

**ESKORIAITZA****Abian ontzien erabilera sustatzeko kanpaina ▼◀**

Eguneroko erosketetan erabiltzen den paper edo plastikoa gutxitze aldera, ontziak eroateko ohitura zabaltzeko *Ontziratuz zaituzte* izeneko kanpaina jarri zuen martxan Eskoriatzako Udalak; hain justu, arrain edo okela bila joateko ontzien erabilera sustatu gura zuen horrekin. Esperientzia pilotua zen hori, Dorleta inguruan jarritako auzo-konpostarekin batera. Udala pozik agertu zen batak zein besteak izandako erantzun onarekin.



ALDEDI

Urte berri on!

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84

DEBAGOIENA

KORRIKAN PRESOEN ARGAZKIAK ERAMATEAGATIK ABSOLBITUTA

Duela bi urteko Korrikan euskal presoen argazkiak eramateagatik epaitutako hiru bergarar eta arrasatearra absolbitu egin zituen Auzitegi Nazionalak. Epaia ez zen irmoa, eta, fiskalak errekurtsua jarri ostean, Auzitegi Gorenari dagokio sententzia ematea.

ESKORIATZA

ESPAINIAKO BANDERAK TOKI IKUSGARRIAN EGON BEHARKO DU

Epaileek Eskoriatzako Udalari agindu zioten Espainiako bandera udaletxean "toki ikusgarrian eta lehentasunezkoan" jartzeko. Agindu berri hark balkoian zeuden 26 nazionalitateetako banderen formula legez kanpo uzten zuen.

DEBAGOIENA

NEGOZIOEN 'OSCARRA' MONDRAGON KORPORAZIOARI

Boldness in Business izeneko saria eskuratu zuen Mondragon Korporazioak negozio eredu baten benetako proposamen berri bat egiteagatik. Lan kolektiboan, elkartasunean eta pertsonak lan arloan kooperatibak duen inplikazioagatik.



BERGARA



ARETXABALETA



ARRASATE



ONATI



LEINTZ GATZAGA



ANTZUOLA



ELOSUA



FAGOR-EDERLAN

DEBAGOIENA

Bailara guztiak egin zuen korrika ◀▶▶

Lehen aldiz Korrika Elosutik pasa zen, eta auzotarrek egindako ongietorriaren ostean Debagoiena zeharkatu zuen.

Bailara gauean zeharkatu arren, korrikalariak, suhiltzaileen ongietorria, Eroskiko biribilgurneari emandako buelta estra... Hamaika kontu izan genituen 18. Korrikan.

Betiko moduan, Debagoienak primerako akonpainamendua egin zion euskaren aldeko lasterketari.



ESKORIATZA



Gabilondo - Arregi

harategia - urdaitegia

Gabon zoriontsuak eta Urte berri on guztioi!

KALEBARREN 5

943 76 62 90

ANTZUOLA

ILAIA

Ile apaindegia • Estetika

GABON JAI ZORIONTSUAK ANTZUOLAR GUZTIOI!

Kalegoi 20 behea ANTZUOLA Tel.: 943 76 63 33



 <p>ARAMAIO MAIDER UNDA EUROPAKO TXAPELDUNORDEA</p>	 <p>ARRASATE MAITE ITURBE EITB-KO ZUZENDARIA</p>	 <p>OÑATI IÑAKI ALDEKOA EUSKALTZAIN URGAZLEA</p>	<p>OÑATI HIRU IKASTETXEETAKO 150 UMEK BATERA ABESTU ZUTEN</p> <p>Lehen eta seigarren maila arteko Elkar Hezi, Urgain eta Txantxiku ikastetxeetako umeek saio bateratua egin zuten. Ganbara abesbatzaren aspaldiko asmoa bete zen, eta oholtzara igo ziren 150 neska-mutiko inguruk erakustaldi polita egin zuten.</p>	<p>OÑATI LILATOIA EGIN ZUTEN LEHEN ALDIZ, MARTXOAREN 8ARENGATIK</p> <p>Oñatin eta Arrasaten emakumezkoak eta gizonezkoak korrika atera ziren, Martxoaren 8aren bueltan, berdintasuna aldarri. Oñatin, gainera, lehen aldiz antolatu zuten Lilatoia, lau kilometroko lasterketa irekia eta lehiarik bakoa.</p>
<p>"Zilarrezko domina aurrerapauso baten ondorio da, eta asko baloratzen dut"</p>	<p>Legebiltzarrak Maite Iturbe arrasatearra EITBko zuzendari nagusi aukeratu zuen. Produktio arloan ibilbide luzea dauka, eta ETB-1 indartzeko asmoa dauka.</p>	<p>"Ideologiengainetik, Euskaltzaindiak hiritar guztien errespetua merezi du"</p>		

BERGARA

Ikasteko aukera bermatzeko, greba ▶

Bergarako UNEDeko patronoek egindako murrizketen ondorioz, irakasleek, zentroan eskaintzen zen metodologia bermatzeko, greba japoniarra egin zuten.

Irakasleen arabera, unibertsitateak 140.000 euro behar zituen ikasturtea arrakastaz amaitu ahal izateko, eta, patronoek diru hori ziurtatu ez zuten, greba egiteko erabakia hartu zuten. Horrez gain, murrizketek eragindako egoera salatzeko, mikroa-gerraldiak ere egin zituzten.



ANTZUOLA

Atez atekoaren urteurrena ospatzeko talde argazkia ◀

Antzuolan atez atekoaren bilketa sistemaren bigarren urteurrena ospatzeko argazkia atera zuten. *Zorionak Antzuola* abestuz, koloretako haize errotak eta bi urteak adierazten zituen kandelari handi batekin ospatu zuten egun berezia.

Atez atekoaren bultzatzaileen esanetan, pozik egoteko eguna izan zen, "atez atekoarekin lorturiko emaitzek (emandako datuen arabera, %85 gaika batzen dute) horixe ematen" dietelako.

ARAMAIO

Manex Agirre bertsoan txapeldunorde ▶

Oihane Perea hirugarren urte txapeldun izan zen Arabako Bertsolari Txapelketan. Manex Agirre aramaioarra, berriz, txapeldunorde izan zen. Ofizioetan aparte, bakarkakoetan mailari eustea falta izan zitzaion Agirrerri.

Perearen eta Agirrerren ostean, Iñaki Viñaspre, Asier Otamendi, Ruben Sanchez eta Jagoba Apaolaza sailkatu ziren. Festa giroa nagusi izan zen bertso jaialdian.

ibili



Behar dituzun sukaldeko tresna guztiak eta gehiago



Jeitsi gure aplikazioa hemen





ibilimenaje.com



ileak

mari karmen ile apaindegia

Gabon zoriontsuak izan!

san lorentzo 9 a behea
tel.: 943 72 60 46
OÑATI





ESKORIATZA ATEZ ATEKOA JARTZEKO PLANGINTZA MARTXAN

Udalak atez ateko hondakin bilketa sistema jarri gura du martxan datorren urte hasieran; horretarako, martxoan hasi eta abendura bitarteko plangintza zehaztu zuten. Beñat Herce alkatearen ustez, "hiri hondakinen gaia garrantzitsua da".

40

URTE

Urteurrena ospatzeko, Bergarako Gure Ametsa elkarteko kideek, argazki zaharren erakusketa antolatzeaz gain, Canalejas tabernako hegazkina berri zuten.

25

URTE

Leintz Gatzagako Sorginak Emakumeen Elkarteak 25. urtemuga ospatu zuen. Herriko hiru belaunalditako emakumeen topaleku bilakatu da elkartea.

OÑATI

Oñatiko bertso-filma publikoaren gustukoena ▼▲

Oñatiko Gero Pentzauku Produxions taldearen *Badator munizipala!* bideoa asko gustatu zitzaion jendeari; gainontzeko 32 filmek baino boto gehiago jaso zituenez, oñatiarren lanak Beasaingo Bertsomovieda lehiaketan ikusleen saria irabazi zuen.



ARRASATE

Herri eskolak eraikin berria inauguratu zuen ◀

Sei ikasgela berri, gimnasio berria, jolastokirako aterpea eta jangela eta sukalde eraberrituak inauguratu zituen Arrasate Herri Eskolak Erguin auzoan duen Lehen Hezkuntzako eraikinean. Lanak Eusko Jaurlaritzaren eta Arrasateko Udalaren artean egin zituztenez, Inazio Azkarragaurizar Arrasateko alkatea bertan egoteaz gain, Kristina Uriarte Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua ere egon zen inaugurazio ekitaldian.

ELGETA

Ahotsak, 10 urtez transmisioa zabaltzen ▶

Euskal Herriko ahozko ondarea eta herri hizkerak bildu eta hedatzen ibili dira azkeneko 10 urteetan Ahotsak proiektuko kideak. *Ahotsak.com* webguneak berak 5 urte bete zituen. Hori ospatzeko eta urte hauetan proiektuan parte hartu duten herritarrak eskertzeko, jaialdia egin zuten Espaloia Kafe Antzokian. Webgune berria ere aurkeztu zuten bertan, eta proiektuko kideek jasotako materiala guztion eskura doan dagoen "altxorra" dela adierazi zuten.



GABON ZORIONTSUAK, GUZTIOI!

Hemen
ascensores+igogailuak
debagoiena


943 04 40 01
691 52 22 04

debagoiena@ascensoreshemen.com
www.ascensoreshemen.com

BENETAKO

**24 ORDUKO
ZERBITZUA** GUK
BAKARRIK EMATEN DUGU

- Pieza originalak
- Euskarazko zerbitzua
- Debagoiengan bertan



BERGARA

JAKIUNDEK OLASO DORREAN EGIN ZUEN URTEKO LEHEN BILERA

Olaso Dorrean egin zuen urteko lehenengo bilera Jakiunde Zientzia, Arte eta Letren Akademiak, Jesus Mari Ugalde bertako presidentek gidatuta. Bertan, hiru kide berri izendatu zituzten: Jose Luis Larrea, Miguel Zugaza eta Victor Gomez Pin.

ARRASATE

JULIO GALARTA PINTOREAREN ONDAREA BABESTEKO ELKARTEA

Julio Galarta Pintorearen Lagunak elkarteak aurkeztu zuten apirillean, haren heriotzaren bigarren urteurrenean. Margolariaren ondare artistikoa babestea, Galartaren figura eta lana ikertzea eta ikerketak bultzatu eta hedatzea ditu xede.

OÑATI

IBARRETXEK, SARASUAK ETA PAGOLAK SANTA ANA BETE ZUTEN

Krisiaren gaineko mahai-inguru luze eta mamitsua egin zuten Oñatiko Santa Ana antzokian Juan Jose Ibarretxek, Jon Sarasuak eta Jose Antonio Pagolak; Debagoieneko Elizbarrutiak antolatatu zuen eta aretoa txiki geratu zen.



**BERGARA
MANEX
AZULA
RIDERRA**

Sierra Nevadako estazioan egindako Espainiako Txapelketa irabazi zuen bergararrak eta half-pipe modalitatean nabarmendu zen.



**ARRASATE
SERGIO
TREVINO
FAGOR ETXETRESNEN
PRESIDENTEA**

Fagor Etxetresnen presidente berri izendatu zuten. Treviñok Fabian Bilbaori lekukoa hartu zion, azken horrek osasun arazoengatik kargua utzi ostean.



BERGARA

Agerraldi jendetsua atez atekoaren kontra ▲

Bergara Garbiak deituta manifestazio jendetsua egin zuten Bergarako kaleetan apirilaren 12an. *5. Edukiontzari bai! 4.691 sinadura. Atez atekoari ez!* pankarta nagusiaz gain, beste bi ere izan ziren: Legazpiko atez atekoaren kontrako plataformarena eta Gipuzkoako atez atekoaren kontrako plataformaren koordinakundearena. Besteak beste, Debagoieneko EAJko hainbat zinegotzik ere egin zuten bat manifestazioarekin.

BERGARA

Berdegara Eguna ospatu zuten Bergaran ►

Berdegara Eguna ospatu zuten Bergaran apirilaren 20an. *Murriztu, berrerabili, birziklatu. Aire garbiak bira nazan: erraustegirik ez!* izan zen aukeratutako leloa. Festa giroan eta hainbat gunetan banatuta ekimen ugari egin zituzten. Umeek euren tokia izan zuten eta hainbat artistak ere egin zuten bat Berdegara Egunarekin. Gainera, herritar talde batek lagunduta, amaierako ekitaldian kartoiz egindako errauskailu bat bota zuten lurrera.




ARETXABAETA

'Prozaka.eus' terapia aurkeztu zuten ▲

Apirilaren 20an estreinatu zuten Aretxabaletan *Prozaka.eus*. Hain zuzen, euskararen erabileraren gaineko hausnarketa egiteko helburuarekin sortu zuen Loramendi Elkarteko Sustapen Taldeak.

Kepa Errastik eta Oihan Vegak aurkeztu zuten emanaldia eta 30 herritarren laguntzarekin grabatutako umorezko esketxak ikusteko aukera egon zen. Arrakasta izan zuen ikusleen artean saioak, Arkupeko Zاراia aretoa goraino bete baitzen.



HORTZ KLINIKA
UARKAPE

Nicolas Bermejo doktorea

RPS: Tramitatzen

Uarkape 16 • ARRASATE • Tel.: 943 79 87 90 - 943 79 10 85

*Odontologia orokorra
Endodontzia
Inplantologia
Protesiak*



ANDRA MARI
AHOLKULARITZA

FISKALA • KONTABLEA
LABORALA • DEFENTSA JURIDIKOA

*Jai Zoriontsuak
eta
Urte Berri On!*

Andra Mari auzunea 3 Behea
ARETXABAETA
Tel./Faxa 943 79 29 26
joseluis@asesoriaandramari.com

348

BISITARI

Kopuru horrek bisitatu zuen Bergarako Turismo Bulegoa Aste Santuan; aditzera eman zuten, ordura arte sekula jasotako bisita kopuru handiena izan zen.

14

ETXE-KALERATZE

Debagoieneko 14 etxe-kaleratze kasuren berri eman zuen Kaleratzeak Stop plataformak: bost Arrasaten, lau Bergaran, hiru Oñatin eta bi Eskoriatzan.

BERGARA

DENDAZ DENDA KARTOIA BATZEO TRIZIKLO ELEKTRIKOA

Debagoieneko Mankomunitateak Bergaran aurkeztu zuen apirilean kartoia dendaz denda batuko dituen triziklo elektrikoa. Hondakinen bilketa jasangarriagoa izatea, CO2 isurketak murriztea eta kartoia kalean denbora luzez ez egotea da helburua.



ARETXABAETA

Urkullu lehendakariak Copreci bisitatu zuen

Iñigo Urkullu lehendakariak kooperatibaren 50. urteurrenaren harira bisitatu zuen Copreci. Aretxabaletako lantegiaren planta berria eta herrian Copreciri eskainitako kale berria inauguratu zituen, esaterako. Lehendakariak zorianak eman zizkien orain arteko ibilbideetatik Copreciri eta Mondragon Korporazioari, eta kooperatibak oinarrian duen talde-lana goraipatu zuen. Coprecik urtemuga ospatzeko ekitaldia egin zuen gero, ekainean.



ELGETA

Intxortako gertakarien gaineko errekreazioa

Elgetako Udalak eta Intxorta 1937 kultura elkarteak gidatuta, 1936ko urrian eta 1937ko apirilean Intxortako frontean gertatutakoaren antzezpena egin zuten. Memoria historikoa berreskuratzeko helburua zuen ekimenak eta Debagoieneko eta Elorrioko 100 boluntario inguruk hartu zuten parte. *Frankismoaren inpunitateari tolerantziarik ez* lelopean Elgetarainoko martxarekin borobildu zuten eguna.



BERGARA

Edukiontzia horiak eta urdinak kaleetan

Bergaran hondakinak gaika biltezeko sistemak izango dituen berezitasunetako batzuk eman zituzten ezagutzera Bergarako Udaleko, Mankomunitateko eta Bagarako ordezkariak apirilaren 11n. Besteak beste, edukiontzia urdinak eta horiak mantentzeko erabakia hartu zuten. Baina funtzionatzen ez badu eta adostutako birziklapen datuak bete ez, edo hondakinak nahastuz gero, beste zerbait pentsatu beharra azaldu zuten.

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!



RPS: Tramitatzen

PODOLOGIA ETA ORTOPEDIA ZERBITZUAK

ORAIN HELBIDE BERRIAN



Arantzazuko Ama 19 A - OÑATI
Tel.: 943 53 36 37
Ordutegia: 09:00etatik 13:30era
15:30etik 21:00era
podourratsoinati@gmail.com



ELAY Taldea

BIKANTASUNARI BEGIRA EGINDAKO LANA

Lizarragako Hiribidea z/g
20577 Antzuola
Gipuzkoa
Tel.: 943 76 61 00
Faxa: 943 76 62 62
www.elay.com



ARETXABALETAKO**HERRIAN SORTUTAKO 'BÉRTIKAL' JOKOA AURKEZTU ZUTEN**

Zilindro formako labirinto bat, bolatxo bat eta jokalariairen abilezia dira *Bértikal* jokoaren ezaugarri nagusiak. Aretxabaletan sortutakoa da eta apirilean aurkeztu zuten jendaurrean. UDAko futbol taldeen babesle berria bihurtu zen uztailean.

**OÑATI****DEBAGOIENEN EAJ, TXIPA DUEN EDUKIONTZIAREN ALDE**

Debagoieneko zinegotzi jeltzaleak txipa duen edukiontzia alde azaldu ziren. EH Bilduri ibarrea bosgarren edukiontzia ezartzeko eskatu zioten, txip horren bidez "jendeari hobariak aplikatu ahal izateko, eta birziklatzearen kultura areagotzeko".

**ARRASATE**

HELENA FRANCO
GIPUZKOAKO
OGASUN DIPUTATUA

"Euskadiren erakunde-egitura ez da eraginkorra, zergen harmonizazioa adostea zailagoa delako"

OÑATI**Musikaldia, musikari gazteen eta helduen bilgune ▶▲**

Euskal musika eskolen topagune bilakatu zen Oñati Musikaldiari esker; 50 musika eskolatako 3.000 musikari gazte eta heldu aritu ziren. *Barrenetik sentitu, bizi, musika gozatu!* lelopean musika maratonia egin zuten kaleetan. Iban Garatek umorez gidatu zuen ekitaldia.

**ARRASATE****Jardunaldi Feminista arrakastatsuak ◀**

Hitzaldiak, tailerrak eta Arrasate ikuspuntu feministatik ezagutzeko bisita gidatuak egin zituzten Jardunaldi Feministen barruan. Seber Altube plaza alboko Maisu Arano kaleari izena aldatu zioten, gainera: Arano eta Gartzia maisu-maistrak izatera igaro zen.

Emakume Txokoaren 10. urteurrena ospatzeko egin zuten ekitaldiaren oso balorazio positiboa egin zuten, parte hartzea handia izan zen eta.

**ELGETA****Hondakinen bilketarako plangintza adostu zuten ▲**

Elgetako udalbatzarra osatzen duen hirukoak –Udal Gobernua, EH Bildu eta EAJ– adostasuna lortu zuen hondakinen bilketarako plangintzari dagokionez. Hala, besteak beste, abenduan herri galdeketa egitea erabaki zuten. Gainera, Elgetarako adostutako bilketa ez dela atez atekoa ezta edukiontzietan soilik oinarritutakoa izango eman zuten aditzera; erdibideko sistema ezartzea adostu zen.

**Lenizek jai zoriontsuak
opa dizkizue!**



Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika

Aingeru Guarda Pasealekua, 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxe: 943 71 40 10 • Posta-e: rleniz@euskalnet.net



LIBRE



**EUSKAL PRESO
ETA IHESLARIAK
ETXERA**

**AMAJAUR - BASATI - EKAITZ
ILUNTZ - IRATI - KIMETZ
MUXIBAR - OSORIK - TAUPA**

ARRASATE

AITOR GURIDI ZENA OMENDU ZUTEN SAN ANDRESEN

Maiatzaren 1ean, San Andres auzoko jaietako egun handiengan eta Langileen Nazioarteko Egunean omendu zuten Aitor Guridi, San Andresko alkate izan zena. Auzoaren alde lan egiteaz gain, langileen borrokan ere aritu zen zenbait urtez Guridi.

BERGARA

BEARTEK REGINO VALLE OMENDU ZUEN KULTURA SUSTATZEAGATIK

Regino Valleri, urteetan Bergaran kultura sustatu eta ekimen askotan laguntzaile izateagatik, omenaldia egin zioten maiatzaren 5ean, domeka, Beart Egunean. Hunkituta jaso zuen oroigarria Vallelek Beart taldeko Laskurainen eskutik.

OÑATI

NATRA OÑATI, ZILARREZKO LEB LIGARAKO TXARTEL BARIK

Aloña Mendiko Natra Oñati taldeak zilarrezko LEB ligarako igoera fasea jokatu zuen Plasencian maiatzaren 25eko eta 26ko aste bukaeran. Igoera faseko hiru partiduak galdu zituzten oñatiarrek, eta, hortaz, esku hutsik itzuli ziren.



BERGARA

AHTko lanak hasi zituzten Bergarako irteeran ◀

Maiatzean hasi zituzten Bergaran AHTko lanak. Aramaio inguruko zubiak bukatu eta gero, Bergaran, autobidea, GI-627 errepidea eta Deba ibaia zeharkatuko dituen zubia egiten hasi ziren. Lanak amaitzen dituztenean, zubiak 900 metro eta 11 zutabe izango ditu. Horieta bi Bergara eta Arrasate lotzen dituen errepidearen ondotik pasako dira. Maiatzean hasi ziren lanok egiteko zuhaitzak mozten eta lurra mugitzen Bergaran.

ANTZUOLA

Antzuola, ohorezko erregional mailara ▶

Maiatzaren 12a egun historikoa izan zen Antzuola Futbol taldearentako. Etxeko zaleen aurrean mailaz igotzea lortu zuten antzuolarrek. Denboraldi bikaina egin zuten, eta maiatzaren 12an Idiazabali 5-0 irabazita erregional preferente maila alde batera utzi eta ohorezko erregional preferente mailara igo ziren. Eztalan hasi zituzten ospakizunak eta ondoren udaletxerako bidea hartu zuten. Han, herritarrei eskaini zieten liga.



ARETXABAETA

Larrinagaren heriotzak samina piztu zuen ▲

Maiatzaren 7an hil zen Joseba Larrinaga Mardo Aretxaletako atleta olinpiar ohia. Bizikletan zihuala auto batek harrapatuta hil zen Larrinaga. Gertakariak samina piztu zuen Aretxabalean, eta inguruko herrietan. Hala, maiatzaren 19an omenaldia egin zioten Mardo-ri. Bizikleta-talde eta elkarte askotako ziklistak elkartu ziren Aretxabalean eta bizikleta martxa egin zuten istripua gertatutako tokira (Aramaio).

Bergarar guztioi Zorionak eta urte berri on!

**Kayak
Azpeitxi
Etxagi
Zunbeltz
Irish Pub Galways
Bule**

**Euxebio II
Bodegola
Usoa
Ariznoa
Kai
Iraho**



DEBAGOIENA

EUSKAL PRESOEKIKO KONPROMISO TINKOA

EH Bilduko ibarreko ordezkariak euskal presoen eskubideen aldeko konpromisoak hartu zituzten maiatzaren 13an Monterronen. Besteak beste, herriko presoen egoeraren inguruko dosierra osatzeko asmoa erakutsi zuten.

ARRASATE


MONDRAK KATEGORIA GALDU DU MENDEURRENAREN URTEAN

Maiatzaren 25ean, etxean, Ondarroaren aurka jokaturako lehiari galdu zuen maila Mondrak. Ohorezko erregionaletik erregional preferentera jaitsi ziren Lutxo Iturrinoren mutilak. Bada, puntu bakarra nahikoa zuten arren, 0-3 galdu zuten.

40

URTE

Arrasate Musikalek 40. urteurrena ospatu du 2013an. Ekitaldi nagusia maiatzaren 25ean egin zuten: herritarrekin ospatu zuten urteurrena.



BERGARA 'FELIXIN' ETA 'GUTI' HERRITARRAK

Pazko jaietan Felix Iñiguez de Heredia *Felixin* eta Luis Mari Gutierrez *Guti* omendu zituzten. Jaietako arimak izan dira urteetan *Felixin* eta *Guti*.



BERGARA IMANOL BOLINAGA BERGARAKO ALKATEA OHIA

Imanol Bolinaga (Arrasate, 1933) Bergarako alkate izandakoa maiatzaren 10ean hil zen, 80 urte zituela, bihotzekoak jota, Alacanten. EAJko kidea zen.



OÑATI

Oñati-Arrasate bidegorria inauguratu zuten ▲

Hilabeteetako lanen ostean, maiatzaren 19an inauguratu zuten Oñati-Arrasate bidegorria. Elorekin ziren inaugurazioa egitekoak, baina eguraldi iragarpena zela-eta Zubillaga auzoko frontoira lekualdatu zuten ekitaldia. Inazio Azkarragaurizar Arrasateko alkatea, Mikel Biain Oñatiko alkatea eta Larraitz Ugarte Mugikortasuneko eta Bide Azpiegiturarako diputatua izan ziren ekitaldian, besteak beste. Bizikleta-martxa ere egin zuten.

ARRASATE

Fagor Etxetresnek 89 milioi galdu zituzten ►

Fagor Etxetresnek batzar orokorra egin zuten maiatzaren 7an, etorkizuna finkatzeko. Kontseilu Berria mugimendukoek hautagaia aurkeztu zuten presidente posturako. Azkenean, 2013ko plan estrategikoa onartu egin zuten eta Xabier Bengoetxea hautatu zuten presidente izateko. Bestalde, maiatzaren 13an Mondragon Korporazioaren batzar orokorra egin zuten eta bertan 70 milioiko dirulaguntza-fondoa sortu zuten Etxetresnendako.



ARETXABALETA


MUko Aretxabaletako campusa, inauguratuta ▲

Maiatzaren 22an, eguaztena, inauguratu zuten 2012-2013 ikasturte hasieran atek irekitako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen Aretxabaletako campusa. 100 bat lagun elkartu ziren ekitaldian: Eusko Jaur-laritzako, Gipuzkoako Foru Aldundiko, Aretxabaletako Udaleko eta MUko eta Huheziko ordezkariak, besteak beste. Ikus-entzunezko Komunikazioko Gradua eta zenbait graduondoko hartzen ditu campus berriak.



Ondo pasau Gabon jaixak!

Urte berri on!!



Portu kalea 5 • 20560 Oñati • Tel.: 943 78 12 65 • Faxa: 943 78 07 85

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA



**Zorionak
eta urte berri on!**

Proiektuak · Koltxoiak
Horma-Armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak
Leihoak · Tarimak
Egur lanak



DEBAGOIENA

MAIATZAREN 30EKO GREBAN, ASKOTARIKO ERANTZUNAK

Maiatzaren 30eko greba orokorrak azken urteetako erantzun txikiena izan zuen; hala ere, sindikatuak pozik agertu ziren erantzunarekin. Kooperatiba handietan greba egin ez izana asko igarri zen. Confebasken ustez, "porrota" izan zen deialdia.



GATZAGA

AISIALDIRAKO ORTUAK ESLEITU DITUZTE GATZAGAN

Aisialdirako egokitutako ortuak eskatzeko baldintzak flexibilizatuta, bi adjudikatzea lortu zuen Gatzagako Udalak maiatzean. Lehenengo aldiz egokitu zituen udalak bere partzela batzuk herritarren erabil zitzaten.



ARRASATE KOLDO ZUAZO
HIZKUNTZALARIA

"Ondo kohesionatuta dagoenean nazioa, hizkuntzan ere batasuna ikusten da"



ARAMAIO

Aramaioko argindar sarea eratu zutenei omenaldia ▲

Alaiak erretiratuen elkarteak energiaren gaineko hitzaldi interesgarria antolatu zuen maiatzaren 21erako kultura etxean. Aramaioko argindar sarea izan zuten berbagai eta, gainera, sare hori posible egin zuten udal korporazioko kideak omendu zituzten. 1979 eta 1983. urteen arteko udal korporazioko kide batzuk izan ziren omenaldian, Julian Untzue ta orduko diputatuarekin batera. 80ko hamarkada hasieran jarri zuten martxan sarea.



ARRASATE

Josu Letona arrasatearra, munduko txapeldunorde ◀

Josu Letona arrasatearrak Turkian jokaturako munduko kenpo txapelketan bigarren postua eskuratu zuen. Modu horretan, Letona Espainiako txapeldun eta munduko txapeldunorde izan da 2013an. Letona arrasatearrak zortzi urte daramatza kenpo borroka praktikatzen. Eskoriatzako taldean entrenatzen da Letona, astean lau aldiz.

ESKORIATZA

Antzerki maratoia egin zuten Ibarraundi museoan ▲

Eskoriatzako Teatro Kanape taldeak antzerki maratoia antolatu zuen maiatzaren 11rako. Helburua antzerkia eta gorputzaren espresioa lantzea eta gozatzea izan zen. Zazpi gunek, zazpi agertoki eta zazpi antzezlan gertatu zituzten. Ikuskizunak banaka, binaka eta taldeka egin zituzten. Aktore lanetan eskoriatzarrak ibili ziren. Originala, berritzailea eta arrakastatsua izan zen maratoia.

Diseinua, Ingenieritza, Prototipoak, Fabrikazioa eta Kontrol tresnak, dena zure esku



Produktuen garapena

Kontrol tresnak



diseinua

plastikozko eta txapazko piezentzat



fabrikazioa



prototipoak



Gabon zoriontsuak eta Urte berri on!



Zorionak eta Urte berri on guztioi!



**Bengoa • Ezkiña • Itzala
Nahi • Okoretegi • Rumba • Txoko II**

BERGARA

ANTZERKI ETA GUZTI AURKEZTU ZUTEN ANGIOLILLOREN LIBURUA

Aitor Arantzabal preso ohiak espetxean idatzitako Michelle Angiolilloren gaineko liburua aurkeztu zuten gaztetxean hilaren 14an. Besteak beste, militante anarkistaren heriotza irudikatu zuten eta Koldo Izagirre idazleak poemak irakurri zituen.

ARRASATE

TAO SISTEMAREN TASAK ONARTU ZITUZTEN OSOKO BILKURAN

Hilaren 4ko osoko bilkuran onartu zituzten TAO sistemaren tasak. Unibertsitate inguruan ezarriko dute. Lehen ordu erdiak 10 zentimoko kostua izango du eta hurrengo 15 minutuko denbora-tarte bakoitzagatik bost zentimo ordaindu beharko dira.

OÑATI

FERMIN ETXEGOIENEK LIBURUA AURKEZTU ZUEN

Fermin Etxegoien idazle eta kazetariak *Zinegotzia* liburua aurkeztu zuen hilaren 6an Bilboko liburu azokan. 2013ko ekainaren 6an kokatzen da trama –aurkezpenaren egun bera– eta errealitatean oinarritutako fikziozko istorioa da.



ARRASATE

Txalapartaren doinuak protagonista kaleetan ▶

Arrasateko Ttakun Txalaparta Taldeak lehenengo Txalaparta Eguna antolatu zuen hilaren 29rako. Goikobaluko gaztelu zaharretik egindako dianatik hasita, egun osorako egitaraua prestatu zuten antolatzaileek. Txalaparta saio libreak, irrintzilariak, bazkaria –40 lagun elkartu ziren Udalpe elkartean– eta txalaparta, alboka eta pandero doinuak eta bertsoz alaitutako poteoa egin zituzten, besteak beste. Harrera ikusita, ez da azkena izango.



ARRASATE

Mondragon bisitatu zuen Uruguaiako presidentek ▶

Jose Mugica Uruguaiako presidentek Mondragon Korporazioa bisitatu zuen ekainaren 5ean. Korporazioak eta Uruguaiako Industria, Energia eta Meatzaritza ministroak lankidetzaz hitzarmena egin zuten, programak eta esperientziak konpartitzeko helburuarekin, Uruguaiako sistema kooperatiboa indartzeko. Era berean, Mondragon Unibertsitateak eskaintzen dituen prestakuntza programak ezagutu zituen Mugicak, besteak beste.



BERGARA

Aranzadi Ikastolako eraikin berria ireki zuten ▲

Hilaren 14an inauguratu zuten Aranzadi Ikastolako eraikin berria. Eraikina estreinatzeaz gain, metodologia berria ere hasi ziren aplikatzen. Eraikinaren beheko solairuan hormarik ez egotea da horren adibide: "Umeari espazioarekiko erlazioa bere kabuz garatzeko aukera ematen dio. Proiektu berritzailea da, oso ondo funtzionatu du eta konfiantza osoa daukagu", esan zuen Mireia Gallastegik, Aranzadiko presidentek.

DEBAGOIENA

Debagoieneko iheslariak 'Herria dugu arnas'-en ▼

Ekainaren 15ean Biarritzen egin zen *Herria dugu arnas* ekitaldiaren barruan, bere garaian etxetik ihes egin zuten iheslari debagoienarrekin egon zen Goiena, Iparraldean. Nortzuk diren azaldu eta egun Euskal Herriak bizi duen egoera politikoari ze "ekarpen" egiteko asmoa duten azaltzeko antolatu zen ekitaldia eta bertan izan ziren Debagoieneko Juan Kruz, Oxel, Miren, Kristina, Arantxa, Anjel eta Lorea –argazkian–, besteak beste.



Zorionak eta urte berri on!

08:30 - 20:30
eguerdian zabalik!

Ibargarai 11 • tel.: 943 76 28 92
BERGARA



BERGARA • San Juan auzoa • 943 76 22 97

15**URTE URBIKO FONDAN**


Aritz Altube eta Ruper Altzelai oñatiarrek 1999ko urtarrilean hartu zuten Urbiako fondaren ardura. Bere garaian hartutako erabakiarekin pozik daude biak.

BERGARA LAGUNEK OMENALDIA EGIN ZIOTEN MIGEL OKINA MARGOLARIARI

Migel Okinak omenaldi beroa jaso zuen hilaren 15ean. Lepo bete zen Aroztegi aretoa, Bergarari "asko" eman dion margolariaren omenaldia bertatik bertara jarraitzeko. "Harrituta geratu naiz, onegia izan da: zeruan jarri naute", adierazi zuen omenduak.

ARRASATE NAIARA AGREDAK "OSO POZIK" HARTU ZUEN AULKI BERRIA

Ekain hasieran heldu zitzaion gurpildun aulki berria garun-paralisia duen Naiara Agreda ume arrasatearrari; hura lortzeko diru bilketa herritarren artean egin zen. Almudena Vieco haren amaren arabera, Naiarak "oso pozik" hartu zuen aulkia.

**BERGARA AGURTE BARRUSO**
DIPUTAZIOKO KABINETE-BURUA

Martin Garitano Gipuzkoako ahaldu nagusiaren kabinete-buru izendatu zuten Bergarako alkate ohia ekaineko lehen astean.

**BERGARA ANTONIO IRAZOLA**
ZINEGOTZI OHIA

Hilaren 23an hil zen Antonio Irazola, Bergarako udaletxean ikurrina lehen aldiz jarri zuen zinegotzi ohia; 11 urtez izan zen zinegotzi. 88 urterekin hil zen.

**DEBAGOIENA****Hondakin arriskutsuentzat, garbigune ibiltaria**

Ekaineko lehen astean garbigune ibiltaria aurkeztu zuen Debagoieneko Mankomunitateak Leintz Gatzagan. Helburua, etxean pilatzen diren hondakin arriskutsuak –bonbillak, erradiografiak, bateriak, disolbatzaileak, olio zaharrak, pilak...– herriz herri batzea. Bereziki herri txikietara iristeko asmoz abiatu zuten ekimena –Arrasatek, Bergarak eta Oñatik bazuten garbigunea– eta etxez etxe banatu zituzten egutegiak.

**OÑATI ETA BERGARA****Mozarten 'Requiem'-a, ikuskizun borobila**

Mozarten *Requiem* meza ezaguna kantatu zuen Oñatiko Ganbara Orkestrak Oñatiko Abesbatzaren eta Bergarako Orfeoaren laguntzarekin. Hilaren 9an Oñatiko parrokiaren estreinatuta zuten eta hilaren 29an Bergarako San Pedro elizan errepikatu zuten ikuskizuna. Bi emanaldietan lepo bete ziren elizak eta ikuskizun borobila eskaini zuten abeslariak eta musikariak. Taularen gainean Oñatiko, Bergarako eta Arrasateko 146 partaide izan ziren.

**BERGARA****Eskerrak emanez joan ziren Elortza eta Elexpuru**

Jesus Elortza Bergarako alkateak eta Justina Elexpuru Aralarko zinegotziak euren karguak utzi zituzten hilaren 24an egindako osokoan. Udal Gobernuan egon ziren bi urteetan jasotako laguntza eskertu zuten. EAJ eta PSE-EE alderdiek ere eskerrak eman zituzten biei eta Udal Gobernuak, berriz, Gernikako Arbolako adaxka bana oparitu zien: "Aurrerantzean ere laguntzeko eta berba egiteko prest egongo naiz", esan zuen Elortzak.



943 71 48 45

Zorionak eta urte berri on!
Zure konfiantzako garbiketa enpresawww.hemen-garbiketak.com**Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:**

- Bulego eta lokalak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegiak, ambulatorioak, eta abar.

Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORIATZA • hemen@hemen-garbiketak.com*Elena Elkorok zorionik beroenak opa dizkizue elgetar guztioi.***Zorionak eta urte berri on!**



**ARRASATE
PLAZAOLA ETA
IZAGIRRE**
GOIENAKO
PRESIDENTEAK

Estepan Plazaola Goienako presidentea Aitor Izagirre arrasatearrari pasa zion lekukoa hilaren 6an. Goienak "oinarri sendoak" dituela uste dute biek.



**BERGARA
BEÑAT
REZUSTA**
PILOTARIA

San Juan egunean egin zuen debuta Beñat Rezusta pilotari bergararrak Asperekin. Eibarko Astelena pilotalekuan jokatu zuen lehen partidua, eta 22-17 irabazi.

**ESKORIATZA
ATXORROTZEKO ERMITAK, ITXURA
BERRIA AUZOLANARI ESKER**

Ekaineko lehen asteetan lanean buru-belarri aritu ostean, Atxorrotzeko ermitak itxura berria hartu zuen auzolanari esker. Besteak beste, barnealdea margotu, kanpoko hormetatik harria atera eta teilatua konpondu zuten.

**BERGARA
GORLAKO KANTINA UTZI ZUTEN
MILLETEK ETA GABILONDOK**

13 urteren ondoren, Maria Milletek eta Jose Mari Gabilondok Gorlako kantina utzi zuten. Hilaren 23an egin zuten azken festa, egun osoko ospakizun batekin: bazkaria, txotxongiloen erakustaldia, zuzeneko musika... Naroa Esnal gazteak hartu die erreleboa.



**ARRASATE
Berrikuntza soziala euskaraz, Emun-en eskutik ▲**

Lana euskalduntzea helburu duen Emun kooperatibak 200 euskara plan inguru kudeatzen ditu egun eta ekainaren 20an misioa eguneratu zuela ezagutzera emateko ekitaldia egin zuen Bilboko Euskalduna jauregian. Euskara eta Berrikuntza Soziala jarri zioten izenburu: "Euskara eta Euskal Herria garatzeko misioari aurpegi gehiago ipini dizkiogu", esan zuen Dani Larreak, Emun-eko zuzendariak.



**BERGARA
San Pedro eliza berritua
inauguratu zuten ◀▶▶**

Ekaineko azken aste bukaeran inauguratu zuten San Pedro parroki berritua. Zaharberritze lanearako bi urtez itxita egon ostean, askotariko ekitaldiak antolatu zituzten asteburu osorako. Egundiena hilaren 29a izan zen: parrokiako zaindariaren eguna izanda, Koru Parrokialaren estreinako saioa entzuteko aukera izan zuten meza nagusian. Eguna borobiltzeko, Mozarten *Requiem* mezarekin gozatu ederra hartu zuten bertaratutakoek.



**Goizperrek
gabon jai zoriontsuak
opa dizkizue guztioi.
Urte berri on!**

★

2014



Goizper Group
Elkarlanean garatzen

Ihinzadura · Industria · Bioteknologia

27

URTE

Uztailaren 22an kendu zuten 27 urtean bere kokalekua izan zen Elgetako San Roke kaletik Julian Markiegiren kioskoa. Abuztuaren 28an ireki zuten kiosko berria.

BERGARA

BELCEBLUESEK 'ROAD TO MEMPHIS' AURKEZTU ZUEN

Berumuga jaialdiaren barruan, Belcebluesek AEBetara egindako bidaian izandako bizipenak jasotzen dituen *Road to Memphis* dokumentala uztailaren 5ean eskaini zuten aulki huts barik geratu zen Espoioan. Taldeak kontzertua ere eskaini zuen.

OÑATI

OÑATIKO LEHENENGO RAIDA, COLUMBIA VIDARAID-ENTZAT

Zazpi orduan baliza gehien lortuta, Urtzi Iglesias getxoztarrak eta Barbara Bonfim brasildarrak osatzen duten Columbia Vidaraid bikoteak irabazi zuen uztailaren 6an egin zen Oñatiko lehenengo raid abentura proba. 38 bikote ibili ziren lehian.

OÑATI

ARRANOREN 30. URTEURRENA OSPATZEKO, BAZKARIA

Arrano elkarte eta tabernak 30 urte bete ditu aurten, eta, hori ospatzeko, uztailaren 13an bazkaria egin zuten 70 bat oñatiarrek. Urte hauetan herriaren alde lan handia egin dutela nabarmendu zuen elkarteko kontseiluko kide Iker Loitik.

LEINTZ GATZAGA

PROTAGONISMO BEREZIA HARTU ZUTEN GATZAK ETA GATZAGEK

Gatzaren aprobetxamendua berreskuratu eta etekina ateratzeko asmoa abiapuntu hartuta, uztailaren 19an Barnealdeko Gatzagen Lehen Topaketak egin zituzten eta hurrengo egunean Gatzaren Eguna ospatu zuten.



ANTZUOLA

Elayren euskara planagatik ospakizun eta sariak

1992an euskara plana abiatu zuen Antzuolako Elay enpresak eta lan esparruko lehen esperientzia izan zen hura. Planaren helburuak bete direla ospatzeko, ekitaldia egin zuten Antzuolan uztailaren 18an.

Plan horrek bestelako aipamenik ere izan du 2013an: maiatzean, Portugaleteko Ibilaldian omenaldia jaso zuen; eta ekainaren 28an, berriz, planean parte hartze zuzena izan zuen Anaje Narbaizak Bai Euskarari Laguna saria jaso zuen.



BERGARA

'Bergara 1936, gerra eta errepresioa', kalean

Uztailaren 5ean aurkeztu zuten, jendaurrean, ia goraino bete zen Zabalotegi aretoan, *Bergara 1936, gerra eta errepresioa* dokumentala jasotzen duen DVDA.

Intxorta 1937 Kultura Elkar-teak landutako ikus-entzunezkoan, 36ko gerrak Bergaran utzitako bizipenak batzen dituzte, 25 testiguren eta gerrako pasartearen errekreazioekin. Jendaurreko aurkezpenean, omenaldia ere egin zitzaion gerraren eta ondorengo errepresioaren biktimei.



LEINTZ GATZAGA

Hondakin organikoak, konposta egiteko

Uztailaren 9az geroztik hondakinak biltzeko sistema berria dago Leintz Gatzagan: hondakin organikoak berrerabiltzeko, herritarrak auzo-konposta eta auto-konposta egiten hasi ziren. Horretarako, herrian ordura arte egon ziren edukiontzia berriengatik aldatu zituzten, eta herriko ekarpen guztiak ere indarrean jarri zituzten. Sistema berriarekin hasi ziren egunean bertan, bi ikastaro egin zituzten gatzagarrek, baita instalazio berriak inauguratu ere.



Andra Mari plaza 2
Tel.: 943 76 81 97 ELGETA
meriyuelgeta@hotmail.com




**GOIKOETXE
HARATEGIA**



Salbador kalea 1 ELGETA
Tel.: 943 78 82 06

**ZORIONAK
eta urte berri on!**



ANTZUOLA
IÑAKI MATA
BURUHAUNDIEN
EGILEA

Uztailaren 12an aurkeztu zituzten Alardeko protagonista nagusiak –Mairua eta Buruzagia– irudikatzen dituzten buruhandi berriak, Iñaki Matak egindakoak.



ESKORIATZA
NARCISO PAVO
ESKORIATZAKO
ARETO FUTBOLEKO
ENTRENATZAILEA

Uztailean izan ginen areto futboleko entrenatzaile eta areto futbol eskolako koordinatzailearekin, kirol horren alde egindako lanagatik saria jaso zuen–eta Bartzelonan.



ESKORIATZA
OIER ETA ASIER
ESKIBEL
SANFERMIN-ZALEAK

Hilaren 13ko entzierroko pilaketan egon arren, ez zitzairen ezer gertatu. "Zortea izan nuen, buelta emateko aukera izan nuelako", zioen biharamunean Oierrek.

ELGETA
BI ASTEAN PLASTIKOZKO 300
ONTZI BANATU ZITUZTEN

Erosketetan erabilitako bilgarriek sortutako hondakin kopuruari irtenbidea emateko, Elgetako Udalak eta herriko hiru komertzio bat egin zuten Kutxabanken Gizarte Ekintzako Ekoguneren *Ontziratuzaitze!* kanpainarekin. Bi astean 300 ontzi banatu zituzten.



BERGARA
Jaione Isazelaiak alkate kargua hartu zuen ◀

"Arrazoi pertsonalak tarteko" ekainean Jesus Elortzak alkate kargua utzi ostean, uztailearen 22an eginiko osoko bilkuran Jaione Isazelaia bihurtu zen Bergarako alkate. EH Bilduko zerrendan bigarrena, ordura arte Udaleko Komunikazioaz arduratzen zen.

Osoko bilkura berean beste hainbat aldaketa izan zituen udalbatzak: Joseba Moñuxek Isazelaiak utzitako lekua hartu zuen; eta Rafa Stxez Muxikak, Aralarko Justina Elexpuruk utzitakoa.



OÑATI
Ondasunak euskalgintzan banatuta, agur Laixani ▶

Lanerako jende faltaren ondorioz 2.009az geroztik bere jarduna etenda zegoen arren, uztailearen 12an egindako ekitaldiarekin behin betiko agur esan zuen Oñatiko Laixan euskara elkarteak.

Ekitaldia, baina, berezia izan zen, elkarteak kutxan zuen dirua euskal kulturari "beharririk larriena" dutenei eman nahi izan zieten-eta. Hala, 25.000 euro banatu zituzten Seaskaren, Debaguneren, Euskalerrria Irratiaren eta Berriaren artean.



OÑATI
Aparteko arazo barik hasi zen atez ateko bilketa ▲

Paper eta kartoiendako kubo urdina atereaz estreinatu zuten oñatiarrek uztailearen 1ean atez ateko hondakinen bilketa sistema.

Lehen egunen balorazio "oso positiboa" egin zuen Leire Egañak, Ingurumen zinegotziak: "Normaltasun osoz hasi da, lehen hiru egunetan ez dugu arazorik izan". Herritarren erantzunaren inguruko zenbakiak emateko goizegi zela esan arren, herritarrek zoriondu zituzten "erakutsitako arduragatik eta erantzun onagatik".



Atxabaltar danoi
Zorionak eta urte barri on!



Aretxabaletako
Udala



MARTIN frutategia
Frutan eta txarkuterian
espezialista

Urte berri on!

San Juan Kalea 12 **ESKORIATZA** Tel: 652 77 53 58



ARETXABAETA
ESKLEROSI ANIZKOITZA DUTENEN ALDE, SASKIBALOI TXAPELKETA

Hilaren 12an, 13an eta 14an hirunako saskibaloi txapelketa egin zuten, esklerosi anizkoitza dutenen alde lan egiten duen Ademgi elkartearentzat dirua batzeko. Hainbat maila egon ziren; herriko kuadrillen artekoan, esaterako, 21 taldek hartu zuten parte.

ESKORIATZA
KEPA JUNKERAREN KONTZERTUA ERREKAN GORA BARRUAN

400 ikusle batu ziren uztailaren 19an Kepa Junkerak Errekan Gora jaialdiaren emandako kontzertuan, eta emanaldiak argi generadoreak huts egin zuten arte iraun zuen. Biharamunean, Eñaut Zubizarreta txelo-jotzaileak eta Ganbara abesbatzak eman zuten kontzertua.

ARRASATE
Mondra eta Realarekin, Mojategi jendez lepo ◀

Mondrak 100 urte bete ditu 2013an, eta, urteurrena ospatzeko ekitaldien artean, uztailaren 12an Mondrak eta Realak Mojategin jokatutako lagunartekoa izan da ikusmin handiena piztu duena.

Talde txuri-urdinak Arrasateko futbol zelaia bisitatzen zuen lehen aldia zen; baita talde bakoitzeko entrenatzaileen (Mondrako Gotzon Urzelai eta Realeko Jagoba Arrasate) estreinaldia ere. Azken emaitza, kasu honetan gutxienekoa, 0-12 izan zen.



ESKORIATZA
Hondakinen Mahaia akordioa erdietsi zuen ▶


Hilabete hasieran, Hondakinen Mahaia akordiora iritsi zen hiri hondakinen sistema berriak izan beharreko helburu eta ezaugarrietan. Besteak beste, sistema berriak hondakinen %70 birziklatzea ziurtatu behar zuela adostu zuten EH Bildu, Ezker Anitza-IU, PSE-EE eta Eskoriatza Zero Zabor taldeek. Mahaian parte hartu arren, EAJ eta Eskoriatza Garbia plataformak ez zuten akordioa sinatu eta plataformak, gainera, mahaia utzi zuen.



DEBAGOIENA
Copreci eta Ederlan lantegiek, mende erdi ▶▶

2013an 50 urte bete dituzte Copreci eta Ederlan kooperatibek. Urteurrena ospatzeko, Ederlanekoek ekitaldia egin zuten uztailaren 13an Arrasaten, eta bertan, erretiratu eta fundatzaileak omendu zituzten. Ospakizunerako prestatu zuten *Ederlantzen* abestia kantatzen amaitu zuten ekitaldia.

Coprecin, uztailaren 19an ate irekien jardunaldiak egin ziztuzten eta langileek sortutako *Lantegixa herri* kantua eta bideklipa modu ofzian aurkeztu zuten.



ARAMAIOKO UDALA ARABA

“Aramaioar guztioi, eta bereziki etxetik kanpo zaudeteno i Aramaioko udalbatzaren partez urte berri on!”

Bulego ordutegia:
Astelehenetik ostiralera: 09:00 - 14:00
Asteazkenetan: 16:30 - 18:30

Bixente Goikoetxea plaza 1
ARAMAIO • Tel.: 943 44 50 16
www.aramaio.org • udala@aramaio.org



Iker Altuna



BERGARA

POL-POL TABERNA, BERRITUTA ETA LEKUZ ALDATUTA

Hiru urtez itxita egon ostean, abuztuaren 19an ireki zuten Pol-Pol berria. Komenio kalean egotetik Domingo Irala kalera egotera pasatu zen. Taberna abuztua ezkerre irekita egon zen arren, inaugurazioa San Martin jaien ostean egin zuten.

ARRASATE

DUNCAN DHU ARRASATEN IBILI ZEN, ENTSEGUTAN

Madrilgo Galileo Galilei aretoan itzulera bira aurkeztu eta Donostian gauza bera egin aurretik, Duncan Dhu bikoteak Arrasateko Soinua estudioa aukeratu zuen Donostiako aurkezpen saio hori prestatzeko. Hainbat entsegu egin zituzten.

ELGETA

ERDIKO DENDA ITXI EGIN ZUTEN, URRIAN ZABALDU ZEN BERRIRO

Abuztuaren 5ean itxi egin zuten Elgetako Erdiko Denda, 2008az geroztik zabalik zegoen saltokia, hain justu. Baina kudeaketaz arduratzen zen Dayami Barok ezin izan zion luzaroago eutsi. Urriaren 2an zabaldu zuen berriro denda Mertxe Anasagastik.

107

MILA EURO

Iragarri zuten Debagoieneko udalek eta Mankomunitateak 107.004,07 euro jasoko zituztela Diputaziotik, hondakin gutxiago sortu eta birziklatzea bultzatzeko.

BERGARA

EIBAR-SANSEK BANA BERDINDU ZUTEN AGORROSINEN

Denboraldi-aurreko azkenaurreko partidua jokatu zuen abuztuaren 7an Eibarrek Bergarako Agorrosin futbol zelaian, Sanseren kontra. Bana bukatu zuten lehia Gipuzkoako bi taldeek, euripean eta harmailen aterpean babestu ziren 500 bat ikusleren aurrean.

OÑATI

Antzinako bi etxe bota zituzten ▶

Urteetan itxita egon ostean, abuztuaren 27an bota zuten Herrera taberna mitikoa zegoen eraikina. Abuztuaren 29an, berriz, errepi-dearen beste aldean zegoen eraikina ere bota zuten, Arantzazu taberna zegoeneko eraikina, hain justu ere. Halakoetan ohi denez, herritarren artean ikusmina eragin zuen bi etxeok eraistek.

Lan horiek Trinitate auzoaren eraberritze planaren barruan egin zituzten. Besteak beste, berdegune bat egin dute bertan.



ARRASATE ETA ARETXABALETA

Ehiza txakurak kiskalita, eta mendiak su hartu ◀

Abuztua hastean bat bi sute piztu ziren gure ibarrean: Aretxabaletan bata eta Arrasaten bestea. Aretxabaletakoa izan zen ikusgarriena. Mendiolarako bidean gertatu zen; txabola batek su hartu eta bertan zeuden ehiza txakur guztiak hil egin ziren (16, txabolako jabearen arabera).

Arrasaten, berriz, Kurtzetxin piztu zen sua. 20 lagun pasak jardun zuten hura itzungintzen.

Bi kasuetan, biharamunean menderatu zituzten suteak.

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Eguneko menua
- Karta

Maulanda
merenderoa

Urte berri on!

Maulanda auzoa ESKORRIATZA
Tel.: 943 71 47 20 eta 678 62 74 85

BERGARA**TABERNARI BATI ERASO EGIN ZIOTEN ABUZZUAREN 11N**


Tabernako beiratea kolpeka txikitu, barrura sartu eta edalontziak bota zizkion tabernaren jabeari, eta gorputzeko hainbat ataletan zauriak eragin. Ospa egin zuen gero 44 urteko gizonezkoak, baina Ertzaintzak atxilotu egin zuen.

ELGETA**ELGETAKO KIOSKOA ATZERA ERE ZABALDU ZUTEN**

Uztail amaieran Elgetako kioskoa bota, eta berria ekarri ostean, abuztuaren 28an estreinatu zuten hura. Aldaketa nabarmena izan zen lehengoak erabilgarri zuten metro koadro bakarretik bost bat metro koadro izatera pasatu zela kiosko berria.

OÑATI**SQUASHEKO KANTXA BATEKO SABAIA JAUSI EGIN ZEN**

Abuztuko azkeneko astean itxi egin behar izan zituzten Oñatiko squasheko kantxak. Kantxetako baten sabaiko zati bat jausi egin zen, eta hiru kantxak itxi zituzten, badaezpada. Konpontzeko lanak bukatu bitartean itxita izan ziren hiru kantxak.

**OÑATI****AINHOA ARTETA SOPRANOA**

Abuztuaren 26an kontzertua egin zuen Ainhoa Artetak Arantzazun. Arrakasta handiz egin ere, Santutegian 1.000 lagun entzule izan zituen-eta.

BERGARA-ANTZUOLA**LANGILE BAT HIL ZEN ABIADURA HANDIKO TRENAREN LANETAN**

Abuztuaren 27an langile bat hil zen Bergara eta Antzuola artean, Abiadura Handiko Trenaren lanetan. Makina batek azpian harrapatuta hil zen. 44 urtekoa eta madrildarra zen. Bada, protesta ekitaldiak izan ziren heriotza salatzen.

**OÑATI****Hartz baten hezurdura, bertako kobazuloan ▶**

Aloña Mendi Espeleologia Taldeko kideek hartz baten hezurdura aurkitu zuten, abuztuko irteeretan, inguruko koba batean. Donostiako material arkeologiko eta paleontologikoaren biltegira eraman zituzten hezurrok.

Izan ere, abuztua aprobetxatu zuten gurean dauden ur-zuluetako batzuk aztertzen, Frantziatik etorri ziren espeleo-urpekari biren laguntzarekin. Araotz Urkulu, Ubao eta Arantzazu inguruetan murgildu ziren.

**OÑATI****Skate-gune berria estreinatu zuten ▲**

Abuztu erdialdean amaitu zituzten Ibarren eraiki zuten skate-guneko obrak. Oñatiko Enpresagintza Fakultatearen eta artxi-boaren arteko zelaian eraiki zuten, hain justu ere, gune berria. Horrekin, skate-zaleen aspaldiko eskaera bati eman zion erantzuna Oñatiko Udalak. Izan ere, Oñatin bada skate-zale talde bat, eta herrian gunerik ez zuten, inguruko herrietara joan behar izaten ordura arte euren zaletasuna praktikatzera.

**BERGARA****Lorategiak aprobetxatu zituzten, aisialdirako ◀**

Bergarak dituen lorategi ederrak aprobetxatuta, aisialdi ekimenak antolatu zituen bertako Udalak abuzturako. Modu horretan, herrian eta inguruan geratzen zirenei eta bisitariei aisialdirako eskaintza egiteaz gainera, Bergarako lorategi eta berdeguneen garrantzia aldarrikatu eta balioan jarri zituzten.

Musika kontzertuak izan ziren nagusi ekimen horren barruan, baina magia ikuskizuna ere antolatu zuten; arrakastaz, gainera.



KANPAZAR

Zorionak eta urte berri on!



Bizkaia etorbidea z/g ARRASATE
Tel.: 943 79 41 98 • Faxe: 943 77 12 84



EAJ
PNV

Eskerrik asko, Debagoiena, zuen konfiantzagatik.

Debagoieneko EAJ

ESKORIATZA

ALDAKETAK LIBURUTEGIAREN ANTOLAKETA ETA ERABILERAN

Liburutegiko espazioa berrantolatu eta aldaketak egin zituzten. Liburuak mediatekan itzuli behar dira orduz geroztik, eta mediatekan ere aurki daitezke bideoak. Moldaketekin, irakurtzeko espazio handiagoa dago liburutegian.

ARRASATE

HAURREN IKUSPUNTUA AINTZAT HARTZEN DUEN HIRIA

Txikiaren ikuspegia oinarri hartuta, herriari beste ikusmolde batez begiratzea da Txatxilipurdik irailan aurkeztutako egitasmoaren ardatza: Haurrasate. Hausnarketa kolektiboari ekin zioten orduan; lehen fasea abenduan amaitu dute.

OÑATI

ETEO-KO ERAIKINAREN ERABILERA ERABAKI

Oñatiko Udalak hiru urte hutsik daraman ETEOko eraikinarekin zer egin erabakitzeko prozesua jarri zuen abian. Abendura arte Bagara ekimenak bideratu du gogoeta. Asmoa da eraikina kultura, eragile eta sortzaileentzako bideratzea.

OÑATI

'FIRI' VENEZUELAN ATXILOTU ZUEN INTERPOLEK

Interpolek Asier Guridi Zaloña Firi Venezuelan atxilotu ostean, batzar informatiboak egin ziren Oñatin. Ihes eginda zegoen oñatiarra 2001. urteaz geroztik, Ekin auzia dela-eta. Espainiako Barne ministroak mugarriztat hartu zuen. Abenduan askatu zuten.

7.500

EURO

Prezio horretan erosi zuen Bolintxo okindegiak Ordiziako Azokako gazta irabazlea. Arrasaten eta Bergaran egon zen ikusgai gazta erdia, gainera.



ESKORIATZA

Ume nagusiagoentzako jolasparkea Torrebason ▶

Irailan inauguratu zuten Torrebason haurrentzako parke berria. Jolasparke berezia da, 9 urtetik gorako neska-mutikoendako, eta guraso talde bati eginiko galdeketa jasotako erantzunak aintzat hartuta jarri dute. Hain zuzen, ume nagusiagoentzako bereziki prestatutako jolas-parkerik ez zegoen herrian eta behar hori zeukaten sumatuta gurasoek. Mugikortasun Astearen barruan inauguratu zuten Udalak.



OÑATI

Interesa eragin zuen Oteizaren erakusketak ▲

Marrazkiak, estanpaketa hitzak erakusketa egon zen Arantzazun. Bisitari ugari izan zituen mostrak. 70 marrazki, estanpak, poema bisualak, 12 eskultura txiki eta Orioko artistari buruzko informazioa jasotzen zituen. Erakusketa osoa poesiarri egindako laudorioa zen eta lengoia horrek laburbiltzen du, hain zuzen, artistaren lan guztia. Bisita gidatuak ere egin zituzten, lana gertuagotik ezagutzeko, eta horietan ere ona izan zen erantzuna.

BERGARA

Hondakinen Mahaiko negoziazioak hautsita ▶

Udal Gobernuak Hondakinen Mahaiko negoziazioak amaitzea erabaki zuen, "mahaiaren progresiorik eza" dela-eta, artean ezelako adostasunetara iristeke. Hala eten zen ekainean abiarazitako mahaiaren ibilbidea. Gobernu Taldea osatzen duten EH Bilduk eta Aralarrek, EAJ eta PSE-EE alderdiek, Bergara Zero Zabor taldeak eta Bergara Garbia plataformak hartu zuten parte irailan geldiarazi zuten negoziatio mahai horretan.



BERGARA

Moja ohietatik gehienak, beste etxe batzuetara ▶

2012ko azaroan iritsi eta urtarrilean Benedikto XVI.ak desegin zituen San Juan eta San Domingo ordenak. Komentuan bizi arren, ordutik hona laiko dira moja ohiak. Munilla Gipuzkoako gotzainaren bedeinkapenarekin etortakoak inorena ez den lurtean geratu ziren, horrela. Mojek irailan adierazi zuten, halere, Elizak ez zituela baztertu eta goi-instantzietan zegoela auzia. Iraila amaitu baino lehen 150 mojetatik 21 zeuden Bergaran.



BEHI-ALDE

ERKOP

BEHI-ALDE, KOOP. E.
Olaeta-Aramaio (Araba)
Zuzenbide postala
Apartado 44
20500 Arrasate

urte berri on!



Tel.: 945 45 01 00
Faxa: 945 45 03 15

MUJIKA

HARATEGIA

Kalebarren 1 - Antzuola - Tel.: 943 766434

Berezitasunak - Baserriko oilaskoak eta zekorak



Jai Zoriontsuak!




OÑATI
RUPER ORDORIKAK LEHEN ALDIZ JO ZUEN GAZTELEKUAN

Bete egin zen Gaztelekua Ruper Ordorikaren kontzertuan. Lehen aldiz jo zuen musikariak bertan eta gazte zein helduak joan ziren emanaldira. Betiko kantuak eta, noski, abesti oso ezagunen bertsiok jo zituen 300 lagun baino gehiagoren aurrean.



BERGARA
JOSE MARI ETA
ARGI OSA
ARTZAINAK

Gipuzkoako artzaintzaren urteroko festan egin zieten omenaldia Joxe Mari Osari eta Argi Osari. Urteetan egindako lanagatik aitortza jaso zuten.



BERGARA
VANESSA
GIMBERT
FUTBOLARIA

Sevilla, Levante, Rayo, Huelva eta Espanyol taldeetan jokatu eta gero, erdilaria Euskal Herrira itzuli zen Athleticen jokatzeko. "Oso pozik" zegoela adierazi zuen.

ELGETA

Domingo Iturbe guneko lanak amaitu zituzten ▲

Domingo Iturbeko lanak zirela-eta, gaztetxoek bi urtez ondoko parkea erabili dute jolasleku moduan. Ikasturte berriarekin batera, baina, irailean inauguratu zuten gunea berria. Oxel Erosarbe alkateak gaineratu zuen Udalak eskolarekin zeukan zor bat bete dutela lan horiekin. "Inbertsio handia izan den arren eta denbora batean itxita eduki dugun arren, nik uste dut guztiondako pozteko eguna dela gaurkoa", esan zuen.

ARRASATE

Kirol talde eta elkarteek euskara bultzatuko dute ▶

AEDren Bultza taldearen ekimenez, Arrasateko 19 kirol talde, klub eta elkarteek euren jardunean euskara sustatzeko konpromisoa izenpetu zuten. Kirolak Arrasaten 5.000 lagunetik gora inplikatzeko dituzte eta AEDren asmoa da kirolaren indar biderkatzaile horretaz baliatzea. Eguneroko jarduna, dokumentuak eta elkarriketak euskaraz egiteko hizkuntza planak egin dituzte talde guztiek, norberak ahal duen neurrian.



OÑATI

Atez atekoaren lehen datuak "oso positiboak" ◀

Biltze sistema berria jarri eta bi hilebetara eman zituzten Udalak datuak lehen aldiz. Gaikako bilketa maila ia %81era iritsi zela jakinarazi zuten, 2012ko eta 2013ko uztail-abuztuko epealdiak konparatuta. Lehen datuok eskuan, balorazio "oso positiboa" egin zuen Udal Gobernuak. Mikel Biain alkateak herritarrek "hasieratik egokitu" zirela azpimarratu zuen eta zoriondu egin zituen oñatiarrek, "errespetu handiarekin" jokatu zutelako.



Ate sekzionalak




Pertsianak



Motorizazioak

Garajeko atea
Segurtasunezko pertsianak
Automatismoak
Konponketak
Urrutiko agente tresna homologatuak
Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak



Gabon zoriontsuak, guztioi!



ARETXABALETA
EMILIO
OLABARRIA
PARLAMENTARIA

"Sarrerak lortzean oinarritu behar dira pentsio-politikak, ez murrizketetan"

ELGETA
INTXORTAKO IBILBIDEAREN 'APP'-A AURKEZTU ZUTEN

Aplikazio berriak *Elgeta memoria* dauka izena, hiru hizkuntzatan dago eta iOS eta Android sistema eragileendako bertsioak daude. Ibilbideko 12 guneetako informazioa ematen da mugikorretarako aplikazio horren bitartez.

ARRASATE
GOIKOBALUKO ERROMERIA ZAHARRA, BERRESKURATUTA

Goikobaluko antzinako erromeria berreskuratzeko ideiak arrakasta handia izan zuen. Bazkaldu eta kantaldia eta dantzaldia izan zuten Santa Barbara parkearen gailurrean. Animatek daude antolatzaileak 2014ean berriz ere errepikatzeko.



BERGARA

Kirola eta kultura kalera ateratzen zaleek ▼▲

Herritarrek hainbat kirol modalitate probatzeko aukera izan zuten Udalak antolatutako *Kirola kalera* egunean, herrian dagoen kirolerako aukera zabalaren erakusgarri. Halaber, kulturarekin antzerako egitasmoa egin zuten. *Kultura kalean* ipini zioten, kasu honetan, izena egitasmoari eta erdiguneko zortzi gunetan egin zituzten eman-kizunak hainbat taldek.



ANTZUOLA

Lan heriotza Deskargan, autobideko lanetan ▲

Autobidea egiteko egokitutako pista batean gertatu zen ezbeharra. Lanean zebilen kamioi bat pistatik irten eta 10 metroko lubetatik erori zen. Kamioian harrapatuta geratu zen 33 urteko gidaria, Aballa enpresakoa. Gehiengo sindikalak elkarretaratzea egin zuen. "Lan-baldintza eskasak" eta "prekarietatea" salatu zituzten. Diputazioak Aballa lan hauetatik baztertu egin zuen kautelazko neurri modura.



TELAETXE

Oihalen neurketatik etxean ipintzera arte dena gure esku
Fabrikako preziotan

- Kortinak
- Kortinoiak
- Estoreak
- Fundak
- Mantelak
- Nordikoak
- Izarak
- Oihalen neguko kolekzio berria ikusgai eta orain **ALFONBRAK**

Elgeta bidea, gasolindegitik 300 metrora

• BERGARA •

Tel.: 943 76 39 40 / 41

Astelehenetik larunbatera

10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara zabalik

ARETXABALETAKO

EREIN DA JAN KOOPERATIBA AURKEZTU ZUTEN

Erein Da Jan kooperatiba eratzeko prozesuan buru-belarri ibili ziren Bagarako eta herriko hamar pertsonako talde eragilea. Lehenengo sektorearekin eta kontsumoaren egoerarekin kezkatuta sortu zuten kooperatiba.

LEINTZ GATZAGA

25 USO POSTU ADJUDIKATU ZITUZTEN HIRU SAIAKERATAN

Hiru saiakera egin ostean, Leintz Gatzagako Udalak ehiza barrutirako 25 postu adjudikatu zituen. Adjudikatzeko 45 postu zituen, baina 25 bakarrik banatu zituzten. Oilagorra ehizatzeke eta ehiza larrirako postuak esleitu barik geratu ziren.

ARETXABALETAKO

JABEARI USTEZ MAILUAREKIN JO OSTEAN ATXILOTUTA

Urri hasieran 44 urteko gizonezkoa atxilotu zuten ertzainek, lesioak eta legez kanpoko atzemate delituak egotzita. Ertzaintzaren arabera, etxeko ugazabari mailu batekin erasotu zion buruan. Martuteneko espetxera eraman zuten.



DEBAGOIENA
JESUS EGIGUREN
PSE-EE-KO
PRESIDENTEA

"Sozialista gipuzkoarra naiz eta beti pentsatuko dut diferente"



DEBAGOIENA
LARRAITZ UGARTE
MUGIKORTASUN
DIPUTATUA

"Jendeak ikusten du garraio zerbitzua hobetzeak eragina duela egunerokoan"



ESKORIATZA

Eskoriatzako alderdi jeltzaleak 100 urte ▶▶


Urriaren 20an egin zuten Eskoriatzako EAJren mendeurrena ospatzeko ekitaldia. Lagunekin, senideekin eta herritarrekin ospatu zuten urtebetetzea. GBBko presidente Joseba Egibar eta EBBko presidente Andoni Ortuzar gonbidatuak artean egon ziren. Era berean, Eskoriatzako alderdikideak omendu zituzten.



ARRASATE

Fagor Etxetresnen jarduera etetea ▶▶

Fagor Etxetresnek jarduera geratu zuten, ordainketak eten zituzten eta hartzekodunen borondatezko aurre-lehiaketa prozesua hasi zuten. Hori horrela, enpresak Euskal Herrian zituen 2.000 inguru lan-bazkide langabezian geratu ziren urriaren 21ean. Langileek manifestazioa egin zuten Arrasaten: *Gure lanpostuen defentsan*. Bestalde, urriaren 30ean Mondragon Taldeak "aho batez" baztertu egin zuen Fagorrek eskutatako dirulaguntza ematea.



RPS: Tramitatzen

AGIRRE

HORTZ KLINIKA

**Urtea ondo
bukatu eta
hobeto hasi**

Erretiratu eta langabeei
DESKONTUAK
Informa zaitez!

- Odontologia orokorra
- Periodontzia
- Ortodontzia
- Endodontzia
- Kirurgia
- Protesiak
- Inplanteak
- Estetika
- Hortzen zuritzea

Ibargarai 9, 1-B. Bergara Tel.: 943 76 00 23 Orduetgia: 08:00-21:00 (Eguerdian ere zabalik).

AEGON
aseguroak

Preso/iheslariak eta krisia
pairatzen ari zaretenak goguan.

Urte berri on, danoi!

eh
bildu

 <p>OÑATI JERARDO ELORTZA ETA JOSE AZPIAZU HISTORIALARIAK</p>	 <p>ANTZUOLA TOMAS MADINABEITIA APAIZA</p>	 <p>ARRASATE JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL IDAZLEA</p>	 <p>LEINTZ GATZAGA NARCISO BEITIA HERRITARRA</p>	<p>ANTZUOLA ESKOLAKO UMEAK GELA AURREFABRIKATUETAN</p>
<p>Jerardo Elortza eta Jose Antonio Azpiazu historialariak Euskalerrria Adiskideen Elkarteko kide izendatu zituzten. Oñatiko unibertsitateko ekitaldian.</p>	<p>Antzuolako parrokoaren heriotzaren lehen urteurrenean, omenaldia egin zioten herritarrek. Besteak beste, Kongon garatutako proiektuak erakutsi zituzten.</p>	<p>Josemari Velez de Mendizabal berretsi zuten Jose Miguel de Barandiaran Fundazioko zuzendaritza batzordeko presidente karguan.</p>	<p>Narciso Beitia gatzagarrak 103 urte bete zituen San Narciso egunean. Egun berezi hartan Eugenio Otsoa alkatearen bisita jaso zuen.</p>	<p>Herri Eskolako lehen mailako bi taldek gela aurrefabrikatuetan hasi zuten ikasturtea. Duela pare bat urte egin zioten eskola handitzeko eskaera Eusko Jaurlaritzari. Proiektua onartu egin zuten, baina, oraingoz, ez dituzte lanak hasi.</p>

ANTZUOLA

San Josepe kaleko lanak bukatu zituzten ▼

Antzuolara sartzeko, San Josepe kalean horma sendotu zuten. Horretarako, burdina sartu zioten presiopean. Gainera, 43 buloi sartu zituzten barruko haitzeraino, horma hobeto eusteko. Hain zuzen, lan haiek 2012aren amaieran egindako lanen bigarren fasekoak ziren.

San Josepe kaleko lanek eragina izan zuten antzuolarren eta kanpotarren egunerokotasunean: herriko beheko sarrera itxita egon zen hainbat astean.



ARRASATE

Ekain Zubizarreta askatu zuten ◀

Herrira auziarengatik atxilotu zuten Ekain Zubizarreta arrasatearra Andoainen. Urriaren 3an epailearen aurrean deklaratu ostean, hurrengo egunean aske utzi zuten Xabier Zubizarreta Arrasateko alkate ohiaren semea. "Kanpoan jendea gure alde mobilizatzen zegoela jakiteak asko lagundu" ziela esan zuen Zubizarretak kalean zegoela. *Herrira* mugimenduari emandako "kolpeak" mobilizazio ugari ekarri zituen.




OÑATI

Lope de Agirreren omenez askotariko ekintzak ▶▲

Lope de Agirreren jaiotzaren 500. urteurrena ospatzeko, askotariko ekintzak egin zituzten Oñatiko ARTaso taldearen eskutik. Besteak beste, herriko 22 artistak egindako lanak erakutsi zituzten. Nork bere begiekin Lope de Agirre nola ikusten zuten erakutsi zuten.






12€
Eguneko menua

16,50€
Asteburuko menua

Karta zerbitzua

Urte berri on!

Kalebarren 17
ANTZUOLA
erreserbak: 943 78 70 68





Ana Etxeberria

- Kirol masajista
- Osteopatia
- Esku terapeuta
- Akupuntura

Zorionak eta Urte berri on!

RPS: Tramitatzen

Errekalde 6 behea • ANTZUOLA • Tel.: 943 76 60 13



ARRASATE GALARRAKO KOBAN BURDIN MEATZEA EGON ZEN

Arrasateko Meatzerreka auzoko Galarra koban aurkitutako piezek ondorioztatu zuten han burdin meatzea egon zela. 2012ko abenduaren 7an lau gazte koban galdu ostean ezagutu zen gunearren garrantzia. Besteak beste, gurutzeak topatu zituzten.

DEBAGOIENA LAN-ORIENTAZIO ZERBITZU IBILTARIA MANKOMUNITATEAREKIN

Debagoieneko Mankomunitateak lan-orientazio zerbitzu ibiltaria estreinatu zuen, Lanbiderekin elkarlanean. Herririk herri ibiliko da, Aretxabaletan izan ezik. Zerbitzua doakoa da eta langile eta langabeendako zerbitzua da. Bi orientatzailek dihardute.

300

LAGUNETIK GORA

Mankomunitateak antolatutako *Ura eta erreka* astearen bueltan Bergarako Udalaren deia erantzun eta 300 bergarretik gora ibili zen Deba ibaia garbitzen.



ARETXABALETA Kantari karaoke ikuskizuna abian ◀▲

Urriaren 19an hasi zen Kantari karaoke ikuskizunaren laugarren aldia. Diskoteka giroan hasi zuen ibilbidea Goiena Komunikazio Taldeak bi urtean behin martxan ipintzen duen ikuskizuna. Aretxabaletan egin zituzten lehenengo grabazioak. Horren ostean, Bergaran, Arrasaten eta Oñatin egon ziren.

Amaia Txintxurretak aurkeztutako saiora Debagoieneko 600 neska-mutiko aukeztu ziren.



BERGARA EAJk alkatearen dimisioa eskatu zuen Bergaran ▶

Urriaren 28an osoko bilkura gora-beheratsua izan zuten Bergaran. Aintzane Oiarbide EAJren bozeramaileak hondakinen gaineko adierazpena irakurri zuen. "Atez ateko sistema inposatzeko erabakia" hartu izana leporatu zion Gobernu Taldeari. Era berean, "ezkutuan aritzea egotzi zion". "Bergarrendako errespetu falta hori ikusita" Jaione Isazelaia alkatearen dimisioa eskatu, eta osoko bilkura aretotik alde egin zuten.



BERGARA Hondakinak gaika batzeko kuboak banatzen hasi ▲

Urriaren 29an hasi ziren Bergaran hondakinak gaika batzeko kuboak banatzen. Etxe bakoitzeko bi edukiontzi marroi (organikoarendako) eta gris bat (errefusarendako) banatu zituzten.

Gainera, aste berean, "desobedientzia zibilerako" dei egin zuen Bergara Garbiak, eta herri-tarrei eskatu zion "kuboak ez" batzeko. Bestalde, Zero Zaborrek kuboak batzera joan eta Bergara Garbiaren kontsultan "parte ez" hartzeko eskatu zuen.

ARETXARGI

aretxargi@aretxargi.com

BELORRIETA, 15 BEHEA 20550 ARETXABALETA - GIPUZKOA

☎ 943 532 628 📞 645 734 032

INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOAK

*Zorionak eta urte
berri on guztioi!*



DEBAGOIENA

KORRIKAKO INPUTUEN ABSOLUZIOA BERRETSI ZUTEN

17. Korrikan presoan argazkiak eramateagatik epaitutako Amaia Osa, Sebastian Etxeberria, Joseba Garitaonandia eta Iñaki Manuel debagoiendarren absoluzioa berretsi zuen azaroan Auzitegi Gorenak. Pozik agertu ziren lau debagoiendarrak.

ARETXABALETA

ALBERTO ALBISTEGI KARGUTIK KENTZEA ERABAKI ZUEN UDA-K

Azaroaren 19an hartu zuen erabakia UDAko zuzendaritzak, taldeak izan zuen denboraldi hasiera txarra ikusita. Hirugarren mailara igotzeko asmoz hasi zuten urtea, eta jaitsiera postuetan zeuden. Arenazak hartu zuen taldearen ardura.

OÑATI


ZERO ZABOR SARIA JASO ZUEN ELKAR HEZI IKASTETXEAK

Oñatiko Elkar Hezi ikastetxeak 2013ko Zero Zabor saria jaso zuen azaroaren 19an Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik. Saria jasotzeko arrazoiaren artean izan zen eskolan bertan konpostatzen dituztela sortutako hondakin organikoak.



BERGARA MIGUEL GONZALEZ BASTIDA
MUSIKARIA

Urriaren 31n hil zen musikari bergararra, eta azaroaren 2an egin zioten hileta elizkizuna San Pedro parrokian. Ospakizun berezia izan zen, eta jendetsua.



ARRASATE MAIALEN AXPE
PERTIKA-JAUZILARIA

2013ko emakumezko atleta onenaren saria jaso zuen atleta bedoñarrak Gipuzkoako Federazioak azaroan egindako Gipuzkoako atletismo galan.



ARRASATE

Fagor Etxetresnen konkurtso eskaera ▲

Azaroaren 13an aurkeztu zuen konkurtso eskaera Fagor Etxetresnak kooperatibak, eta berehala iritsi zen langileen eta bazkideen erantzuna; giza kateak, manifestazioak, elkarretaratzeak... Mobilizazioak langileek eta bazkideek deitu zituzten, baita Ordaindu plataformako kideek, Azpeitiko Grumal enpresakoek, Edesakoek... Mondragon Korporazioak, berriz, Enplegu Bulego Korporatiboa jarri zuen martxan bazkideak birkokatzeke.



BERGARA

4.843 boto hondakinen gaineko galdeketa ◀

Bergara Garbia plataformak deituta hondakinen kudeaketaren inguruko herri galdeketa egin zuten Bergaran azaroaren 9an eta 10ean. Antolatzaileen esanetan, bosgarren edukiontzia alde izan ziren botoen %98,5, eta EAJk EH Bilduren kudeaketa kaotikoa salatu zuen. Soka luzea ekarri zuen galdeketa biharan. Bergara Zero Zaborrek eta Sortuk irregularitasun larriak salatu zituzten, hori frogatzen zuten bideo eta guzti.



Elgetako Udala

www.elgeta.org



Zorionak, Elgeta!

Elgetarron %25ek sortzen dugun hondakin organikoa Elgetan kudeatzen dihardugu.

Heldu indarrarekin 2014ari!

DEBAGOIENA**'PAROT DOKTRINA' INDARGABETUTA, PRESOK ASKE**

L.M. Azkargorta aramioarra askatu zuten azaroaren 8an, Estrasburgoko epaitegiak *Parot doktrina* indargabetu ostean. J. M. Zabarte arrasatearra azaroaren 20an askatu zuten. Urizar (Arrasate) eta Usandizaga (Oñati) oraindik preso daude, *Parot doktrina* ezarrita.



ARRASATE
ZIGOR
EZPELETA
ENPLEGU BULEGO
KORPORATIBOA

"Sei hilabeteen beste 500 bazkide birkokatzea da aurreikuspena"



DEBAGOIENA
MIKEL
IRIZAR
TOKIKOM-EKO
PRESIDENTEA

"Ondo antolatuz gero, gai ginatete erdarazko hedabideek ateratzen diguten koska jateko"

**DEBAGOIENA****Lege Psikiatriaren Unitate berria Aita Menni ▲**

Buruko gaixotasun larriak izan eta gaixotasun horien ondorioz delituren bat egin ostean judizialki zigortuta edo prozedura judizialetan sartuta dauden gaixotasun egokitutako gune berria inauguratu zuten Aita Menni ospitalean, azaroaren 29an. Ezagarrak horiek dituen Estatuan lehena eta bakarra da.

Inaugurazio ekitaldian Eusko Jaurlaritzako, Arrasateko Udaleko eta Justizia arloko ordezkariak izan ziren, besteak beste.

**ESKORIATZA****Hondakinak batzeko proba pilotua martxan ▲**

Hondakinak batzeko sistema berria ipini zuten martxan Eskoriatzan, azaroaren 4an. Edukiontzia berdeak, horiak eta urdinak kaleetatik kendu eta horien ordez edukiontzia marroiak eta zintzilikarioak erabiltzen hasi ziren eskoriatzarrak. Udalak azaldu zuten, orokorrean, aparteko arazo barik egin zela aldaketa. Zaborra gaika banatzerakoan sorzitezkeen zalantzak argitzeko, berriz, formazio saioak ere antolatu zituzten.

ESKORIATZA**Txistualdi bateratua proba pilotuaren aurka ►**

Eskoriatzar guztiek ez zuten hondakinak batzeko sistema berria begi onez ikusi. Eskoriatza Garbia plataformatik desadostasuna azaldu zuten, eta hondakin gaineko proba arbuizatzeko txistualdi bateratuak deitu zituzten, astero. Azaroaren 7an egin zuten lehena —ikus argazkia—. Plataformak ontzi arinen eta paperen zabor poltsak eramateko dei ere egin zuten. Azaroaren 22an, bestetik, Eskoriatzako PSE-EE taldeak Hondakin Mahaia utzi zuten.

**ARETXABALETA****Fagor-Ederlan, 70 lanpostu berri sortzear ▲**

Fagor Ederlanek lantegi berria izango duela eman zuen aditzera azaroan. Aurreikuspena da 2014tik 2016ra bitartean 70 lanpostu berri sortzea.

Lanerako, automobil elektrikoaren Espainiako enpresa liderra den Comarth-en %38 erosi zuen Ederlanek, eta, aditzera emandakoaren arabera, sektore horretan lan egiteko izango da lantegi berria. Lantegi hori urtean 2.500 automobil egiteko gai izango dela ere eman zuten aditzera.

Mobiliario ARENAZA altzariak

Bizkaia kalea 1 **Aretxabaleta**
943790807
mobiliarioarenaza@hotmail.com

Gabon zoriontsuak guztioi!



Murillo Garajea
Auto konponketak orokorrean

**Gabon zoriontsuak
bergarar guztioi!**

Leizeaga, 4 - BERGARA
Tel.: 943 76 13 84

506

DEBAGOIENDAR

20

URTE

Azaroaren 10ean jokatu zen Behobia-Donostia, eta 506 atleta debagoiendar iritsi ziren Bulebarreko helmugara. Yera! Varela izan zen ibarreko azkarrena.

Harreman Gobernu Kanpoko erakundeak 20 urte bete zituen, eta urteurrena ospatzeko ekitaldia egin zuten Arrasateko Amaian aretoan, azaroaren 8an

**OÑATI****Zuazola Larraña Institutuak mende Erdiko ibilbidea ▼**

1963ko azaroaren 10ean inauguratua, Oñatikoa Gipuzkoako lehenengo batxilergo institutua izan zen Donostiako Peñaforida Institutuaren ondotik. Oñatiarrendako izugarritzko aukera zen batxilergo herrian ikasi ahal izatea. Gauzak horrela, azaroaren 16an mendi Erdiko ibilbidea ospatu zuten Zuazola Institutuan. Lehengo eta oraingo irakasle, ikasle eta gurasoak elkartu ziren ekitaldian.

**DEBAGOIENA****Erosketak Debagoiengan egiteko kanpaina ▲**

Mankomunitateak, bailarako dendarien elkarteek eta Goiena Komunikazio Taldeak erosketak eskualdean egiteko sentsibilizazio kanpaina aurkeztu zuten azaroaren 21ean. Mankomunitateko presidente Inazio Azkarragarzarrek aurkezpenean esan zuen kanpainaren helburua herriak dinamizatzea eta biziago egitea zela. Kanpainaren barruan eta erosketak bertan egitera bultzatzeko 2.000 euro banatzeko egitasmoa ere aurkeztu zuten.

*Azken blokearen salmenta **Uribarrin**, bista paregabearekin!*



UTE URIBARRI AUZOA **ARRASATE**
sukia GEDI

Tel.: 650 51 98 95 - www.sukia.com

Orientazio paregabea.
 Okapen pribilegiatua.
 Kalitatezko etxebizitzak.
 ? logelako etxebizitza 195.000 €-tik aurrera.
 - 3 logelako etxebizitza 240.000 €-tik aurrera.

Bisita ezazu gure etxebizitza pilotua!

Zorionak eta urte berri on!

OÑATI

AUZOKO EKIMENA, ERDALDUNAK EUSKARARA GERTURATZEKO

Erdal hitzunik euskarara hurbiltzeko helburuarekin, haien hizkuntzen balioa ere errekonozituz, Auzoko ekimena abiarazi zuten Oñatin. Zazpi erdal hitzunekin (auzokideak) zenbait herritar (auzotarrak) batzen ziren astero.

BERGARA

BALIO HISTORIKOKO KONTRATUAK DANOBATGROUP TALDEAN

Abenduaren 18an jakinarazi zuten 103 milioi euroko balioa duten hiru kontratu lortu dituela Mondragon Korporazioko DanobatGroup taldeak. Orain arte duen eskari zifrarik handiena da, Euskal Herrian eta Espainian makina-erremintaren zifra errekorra, hain zuzen ere.

ESKORIATZA

MERKATARIEN ELKARTEA, AXTROKI, AURKEZTU ZUTEN

Eskoriatzako merkatarien elkarte berriak, Axtrokik, bere burua ezagutarazi zuen abenduaren 13an, kale-salmenta bitartez. Txartelak saldu zituzten, tabernek bereziki egun horretarako egindako eskaintzetan gastatzeko.



ARRASATE
JOSE RIVIERE
GIPUZKOAKO
ERRETIRATUEN
ELKARTEKO PRESID.

"Pentsioak KPI adina ez igotzearen alde egiten ez dutenak ez ditugu bozkatuko"



BERGARA
JUANJE
AMASORRAIN
ONDARE
BATZORDEBURUA

"Seminarioko piezak erakutsiko dituen museoa 2014ko Gabonetan irekiko da"

OÑATI, ARAMAIO

Espainiako banderari erantzunez, ikurrina ▶

Espainiako bandera ipintzeko aginduari erantzunez, ikurrinaren aldeko ekintzak egin zituzten Oñatin eta Aramaion abenduaren 1ean. Oñatiren kasuan, 1977ko eta gaur egungo zinegotziek hartu zuten parte, eta ekitaldia EH Bilduren Udal Gobernuak deituta zegoen arren, EAJko zinegotziek bat egin zuten. Jende ugari batu zen Foruen plazan ekitaldirako. Aramaion, ikurrina jaso zuten, ikurrin-dantza egin zuten eta jatekoak banatu zituzten.



ANTZUOLA

Kikirikoa Txiki Txokoa inauguratu zuten ▼

Abenduaren 3an, harrera onarekin inauguratu zuten Kikirikoa Txiki Txokoa, 0 eta 8 urte arteko umeei zerbitzu emateko, Eguzki auzoan. Bereiztasuna zen ez zuela hezitzaileekin funtzionatuko, familiak arduratuko ziren-eta zerbitzuaz. Inaugurazio egunean, 25 familiak zeukaten zerbitzuaz arduratzeko konpromisoa, eta euren kuotekin sostengatzeko. Astelehenetik barikura egongo zen zabalik, arratsaldean.



ESKORIATZA

Hondakinen %91,9 batu ziren modu selektiboan ◀

Intxaurtxueta, San Pedron eta Gaztañaduin hondakinen bilketa selektibo sistema probatu zuten, eta hondakinen %91,9 (fardelak aparte) modu selektiboan jaso zirela esan zuen Jarraipen Batzordeak abenduaren 3an; zergadun bakoitzeko, 6,91 kilo.

Eskoriatza Garbia plataformak ere bere balorazioa egin zuen. Besteak beste, eguenetako txistualdietako erantzuna txalotu zuen eta protesta ekintza gehiago deitu zituen.



IRURAK MARGOAK

DISEINUAK, S.L. MARGO LANAK OROKORREAN

Zorionak
eta Urte
berri on!

Era guztietako lanak • Moketa eta sintasola • Iztuku esponjatua • Paper pintatuak • Harea zorrotada • Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara • Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 25 99 83 / 667 54 89 16 Faxa: 943 76 09 32

autopullmans
Araba



zorionak eta urte berri on!

Angiozar 3-1 BERGARA • Tel.: 943 76 23 45 / San Juan auzoa 11 BERGARA • Tel.: 943 76 55 70
www.arababusbergara.com • info@arababusbergara.com

BERGARA**'BERGARA.NET', IRISGARRIAGOA ETA INTUITIBOAGOA**

Bergara.net webgune berritua estreinatu zuen Udalak. Intuitiboagoa eta erabilerrazagoa egitea zen helburua. Udalarekiko izapideak egiteko txokoa, Udalaren gaineko informazioa, turismo informazioa... eskaintzen du.

ELGETA**HONDAKINEN GAINEKO HERRI GALDEKETA, ATZERATUTA**

Hondakinen kudeaketaren inguruan udalbatzak abendurako adostutako herri galdeketa atzeratu egingo zela jakinarazi zuen Udalak. Izan ere, beste egutegi bat adosteko lanean ari ziren zinegotziak. Kontsulta egin egingo zela ere baieztatu zuten.

ARRASATE**'BEGIRA!! ARRASATE' LIBURUA AURKEZTU ZUTEN**

Herriko historia batzen duen *Begira!! Arrasate* delako liburua aurkeztu zuten Zuztarrak Errotuz elkarteak eta Udalak abenduaren 9an, eta salgai ipini zuten hurrengo egunean. 2012an egindako erakusketan oinarritzen zen.

ARRASATE**ARRASATE MUSIKALEN 40 URTEAK, DVD ETA PENDRIVEAN**

Arrasate Musikal, herri baten *adierazpena* izeneko DVDa aurkeztu zuen Arrasate Musikalek abenduaren 20an. Musika eskolak 40 urte bete zituela ospatzeko egin zuten. Bada, 4 GB-ko pendrive baten ere salgai jarri zuten.

110.000**KILO**

Herritarren artean janari bilketa erraldoia egin zuten elikagaien bankuek. Bada, Bergarako biltegirako 110.000 kilo elikagai batu zituzten bi egun haietan.

ARRASATE**Edukiontzi bidezko hondakin bilketa adostu zen ►**

Hondakinen Mahaiak (argazkian) akordioa egin zuen eta Arrasate-rako hondakinen bilketa sistema adostu zuen abenduaren 2an: kontrolpeko edukiontzi sistema. 2014ko bigarren seihilekoan martxan jartzeko asmoa zegoela azaldu zuten. Edukiontzi berdearen ordez bi edukiontzi izango dira, eta sarbiderako kontrola izango dute. Organikoa aparte batuko da.

**ARAMAIO****Ametzura doan bidea konpondu zuten ►**

Azaroaren 22an lur-jausia egon zen Mendixolara eta Ametzura doan bidean. Obra horiekin, lur-zoru guztia maila berean ipini eta hormigoiarekin finkatu nahi zuen Udalak.

Abenduaren 4an hasi ziren hura konpontzeko lanak, eta ahal bezain laster bidea berriz zabaltea zen Aramaioko Udalaren helburua. Bada, bete zuen helburu hori; egun gutxi iraun zuten lanek, eta abenduko bigarren asterako berriz zabalik zen.

**BERGARA****Atez atekoaren aurka, zabor-poltsak plazan ►**

Bergara Garbiak deituta, hainbat herritarrek hilabeteetan balkoietan zintzilik izan zituzten zabor-poltsak utzi zituzten udaletxe aurrean abenduaren 2an, eta kale-bilkura egin zuten segidan, atez ateko sistemaren aurkako jarrera azaltzeko. Euren hitzetan, sistema hori "garestia, bidegabea eta ez eraginkorra" da, eta horixe gogorarazi zuten egun hartan. Esan zuten Oñatiko Udalak "250.000 euroko zorra" zuela atez atekoaren harira.

**Saunier Duval****GUIPUZCOA**
SematecLAGUNTZA TEKNIKORAKO ZERBITZU
OFIZIAL BAIMENDUA

San Lorentzo 21

20570 Bergara

Tel.: 943 76 06 61

www.sematecguip.combergara@sematecguip.com**BEROGAILUAK, KLIMATIZAZIOA ETA UR BEROA**

**OÑATI****AITA MADINAREN 'ARANTZAZU' POEMA SINFONIKOA**

Aita Madinak 1956an idatzitako *Arantzazu* poema sinfonikoa aurkeztu zuten santutegian. Zarautz eta Oñati abesbatzek eta Zarauzko musika bandak eta Gabota dantza taldeak antzeztu zuten. Santutegia bete egin zen obra ikusteko.

ARRASATE**ENTRENATZAILE TITULUA EUSKARAZ, ARRASATEN SOILIK**

Entrenatzaile titulua ateratzeko euskarazko eskolak ematen hasi ziren Arrasaten, beste inon baino lehenago. Kirola Euskaraz proiektuaren iniziatiba izan zen, udalek eta Mondrak lagunduta. Bailarako eta Debabarreneko 30 lagun zebiltzan ikasten.



ARRASATE
ANDER
LANDALUZE
HARAKINA

Gipuzkoako Merkataritza Ganbararen ekimenez, Debagoieneko merkatariek 10 *bitxiak* saria Landaluze harategiari eman zioten.

ANTZUOLA**Bi hilabeteko obren ondoren, biribilgunea zabalik ▲**

Urriaren 7an hasi zen Sagastiko biribilgunea egiteko obra, eta, hura bukatuta, abenduaren 18an inauguratu zuten azpiegitura. Lehen, Sagasti kale bukaeran bidegurutze arrunta zegoen; bada, leku horretan, 27 metroko biribilgunea egin zuten. Helburu nagusia herri barrutik autobusen zirkulazioa kentzea izan zen.

ARETXABAETA**Herriko atleta onenak omendu zituen UDAk ▼**

Aretxabaletako herriak eman dituen atleta onenak omendu zituen UDAk abenduaren 15ean. Fernando Aguilar *El galgo*, Adolfo Manteca, Belisario Manteca, Lurdes Izurritegi, Ramon Jauregi eta Joseba Larrinaga omendu zituzten, eta oroigarriak eman zizkieten haien senideei. Abenduaren 30era arte zabalik egotekoa zen Arkupen haien lorpenen inguruko erakusketa.

**DEBAGOIENA****'Goiena.net', 'Arrasate Press' eta AED, zorioneko ▲**

Goiena.net atariaren 10. urteurrenean, *Goiena.net* berritua aurkeztu zuen Goienak abenduaren 12an (ezkerreko argazkian). Herritarren komunitatean eta parte-hartzean oinarritutako webgunea izango da. Bestalde, *Arrasate Press* sortu zela 25 urte eta AED elkarte sortu zela 30 urte betetzen zirenez, bultzatzaile eta ordezkariari (Xabier Zubizarretari eta Eñaut Muxikari) oroigarriak eman zizkietan.



Jean Louis David
Ile Apain

Zorionak eta Urte berri on!

Astelehen, astearte eta asteazkenetan

%20ko
deskontua ile-apaindegian*

Eta **mutilek** ere, **ostegunetan**,
garbitu eta moztu, %20ko deskontuarekin.



Ibargarai 43 · 20570 Bergara · 943 76 22 48

www.jeanlouisdavid.com

Astelehenetik Ostegunera: 09:30 > 12:00 / 15:30 > 18:30

Ostirala: 09:30 > 18:30

Larunbata: 08:30 > 12:30

*Deskontuak ez ditu produktuak barne hartzen.

Jira eta bira, krisia ahotan

Krisia, murrizketak, eta aurten Fagor ere sartu da berri txarren zakuan. Onenen artean, krisiaren ondorengo elkartasun handitzea eta balio aldaketa daude; hor, baina, arlo pertsonalera jo dute gehienek.



JOSE ANTONIO AGIRREBEÑA

Elikagai Bankuko arduraduna Bergara



HERRIAREN ERANTZUNA

"Garai gogor hauetan jendearen erantzuna demasa izan da. Egunero laguntzeko prest dagoen jende asko gerturatzten zaigu".



KRISI SOZIALA

"Krisia gogortu egin da. Lehen egoera eroso zuten familia asko, lana galdu eta gero, laguntza eske etortzen dira guregana".



IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ

MUko irakaslea Antzuola



DOKTORE TESIA

"Urte batzuk egiteko erabili eta aurten aurkeztutako doktore tesia izan daiteke maila pertsonal eta akademikoan aipagarriena".



NORAEZA ETA LIDERGORIK EZA

"Seme-alabak ditugunontzat, gizarteak eskaintzen duen proiektio gabeko etorkizuna eta etsipena dira kezka handien sortzen didatenak".



ENERITZ ZUBIA

Ibarraundi museoko arduraduna Eskoriatza



BALIO ALDAKETA

"Krisi egoerak balio edo jarraera aldaketa eragin du. Oraindik asko dago egiteko, baina hasi gara konurtzen zer den garrantzitsua".



KRISIAREN ERAGINA BAILARAN

"Krisiaren eraginak bete-betean harrapatu izana, Fagorren itxierarekin. Denok dugu eragindako ezagunen bat".



ELENA LAKA

Abokatua Bergara



JENDEAREN ELKARTASUNA

"Egoera ekonomiko txarra dela eta, herritarrek aurre egiteko erakusten duten lanerako ekimena eta besteenganako solidaritatea".



EGOERA EKONOMIKOA

"Egoera ekonomikoak eta eskumako politikak eragin dituzten lanpostuen galera, jendearen pobretzea, eskubideen murrizketak...".



NAROA ELORTZA

Erein Da Jan-eko kide Arrasate




HERRIGINTZA

"Garai zailenetan herrigintza eta lan komunitarioa gakoak izan eta izango delako, alternatiba sozioekonomikoak eraiki nahi baditugu".



ETXETRESNEN GAINBEHERA

"Okerrena, baina ez soilik sortutako kalte ekonomiko eta sozialengatik, baita herrian izandako giro eta gatazkagatik ere".



IDOIA ELEXPURU

Aretxarteko presidentea Aretxabaleta



ABUZTUKO LASAITASUNA

"Abuztuko oporrak. Aurrekoetan baino egun gehiago egin nituen Jacan, eta lasai, pozik, bakean eta deskonektatuta egon nintzen".



LANGABEZIA

"Asko daude langabezian, batzuk enplegu-erregulazioko espedienteekin, batzuk tarteka langabezian... Gero eta estuago gaude".

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA

BERGARA / Irizar 2
Tel.: 943 76 03 35

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA /

NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA

BERGARA / Artekale 1
Tel.: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4
Tel.: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK


ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

**AGUSTIN AGINAGALDE**

Basotxo elkarteko presidentea
Aretxabaleta

↑ **FAGORREN ITXIERA EZ BIZITZEA**
"Fagor itxi denerako erretiratu egotea, hori bertatik bizi behar ez izatea da onena. Bertan egonda ez nukeen ulertuko gertatutakoa".

↓ **FAGORREN ITXIERA**
"Urte asko egin nituen Fagorren lanean eta nire eguneroko munduan horixe izan da urteko gauzarik txarrena. Oso gogorra izan da".

**LANDER JUARISTI**

Txapa irratiko kidea
Bergara

↑ **TXAPA BIZIRIK!**
"Urte honetan Txapa irratia osasuna. Komunikabide txukuna gara. Libre gara! Merkatutik at eta edozein loturatatik aske!".

↓ **AHT GERTUAGO**
"Mina ematen dit ulertzen ez dudana azpiegitura absurdo bat horren gertu ikusteak. Eta bitartean, krisia dela eta, murrizketak".

**MANEX AGIRRE**

Bertsolaria
Aramaio

↑ **EKONOMATUA ETA 'PAROT'**
"Ekonomatuak duen marxa eta mugimendua, aukera ederra da eta ondo zaintzen dute. Bestetik, Luis Mari Azkargorta *Kanto*-ren etxeratzea".

↓ **FAGOR ETXETRESNEN ITXIERA**
"Zuzenean eragin gabe, hurbil ikusi dut kolpea. Norbanakoen gainerik, ezkortasun eta animo baxua zabaldu dira herrian eta bailaran".

**IRAITZ AGIRRE**

Bagarako kidea
Arrasate

↑ **INGURUMENAREN ZAINZA**
"Besteak beste, hondakinen kudeaketaren problematika mahai gainean jarri dela, eta jendarte osoaren ardura dela bistarazi".

↓ **HONDAKINEN AUZIA**
"Problematika horren inguruan sortutako komunitate gatazka edo etena, herri batzuetan hain sakona bihurtu dena".

**EDORTA ARANA**

EHUko irakaslea
Leintz Gatzaga

↑ **EUSKARA MUNDIALA**
"Senegaldar batek esan zidanean: "Niri euskaraz egin, mesedez". Euskarak gero eta presentzia handiagoa dauka gizartean".


↓ **TRATU TXARRAK**
"Negarretan ume bat, aitak amajotzen ikusi zuelako. Emakumeen kontrako indarkeriak, zoritxarrez, biktima asko ditu".

**KRISTINA AGIRRE**

Bedelkarreko presidentea
Bergara

↑ **BEZEROEN FIDELTASUNA**
"Duela gutxi hartu genuen denda eta jendeak etortzen jarraitzen du. Zorionez, jendeak herriko merkataritza gustuko du".

↓ **FAGORREN AUZIA**
"Bailara guztian gristasuna zabaldu egin du gainbehera honek. Jendeak gutxiago gastatzen du, eta merkatariek igarri egiten dugu".

**JOSU ZUBIA**

Musikaria eta magoa
Oñati

↑ **DISKOA ATERATZEA**
"Maila pertsonalean diskoa ateratzea izan da niretzat urteko onena. Azaroaren 15ean kaleratu nuen *Argitza* diskoa".

↓ **FILIPINETAKO URAKANA**
"Mundu mailan Filipinetako urakana aipatuko nituzke, horrek eragindako guztiarekin: hildakoak, desagertuak...".

**AINHOA LARRAÑAGA**

MUko irakaslea
Bergara

↑ **KATALUNIako GIZA KATEA**
"Desobedientzia ekitaldi bakte bezain indartsu honek independentziari bide berriak ireki eta ilusio berriak sortu ditu".

↓ **ESPAINIako ERREPRESIOA**
"Gobernuak presoekin izan duen jarraera gogortu du. Hauek zigortu beharrean euren bitartez mendea zabaldu nahi dutela dirudi".

**JON ODRIOZOLA**

Txirrindularia
Oñati

↑ **TXIRRINDULARI PROIEKTUA**
"Azkenean, nahiko bideratuta utzi izana Euskal Herriko txirrindulari proiektua eta Gipuzkoa taldean arduradun moduan jarraitzea".

↓ **PROIEKTUA EZ GAUZATZEA**
"Datorren urterako txirrindulari proiektu profesional hori egia ez bihurtzea. Ondorioz, mutiko asko kanpoan geratuko dira".

**ASUN ARZUAGA**

Ikusi Makusiko zuzendaria
Oñati

↑ **ELKARTASUNA ETA OSASUNA**
"Arazoan aurrean laguntzeko prest dauden erakunde guztiak. Eta pertsonalki, 83 urte izan eta ondo sentitzea, osasuntsu".

↓ **GERRAK ETA KRISIA**
"Siriako gerra, Afrikako gatazka, Filipinetako uholdeak... Krisiari dagokionez, batzuen eta besteen arteko ezberdintasuna handitzea".

Aurtengo oparia

argia

*harpidetza egizu
egiozu*

Orain **%50**eko beherapena

harpide berrientzat lehen urtean

hilean 6 € baino ez!

Eskaerak:

☎ 943 371 545 | harpide@argia.com | www.argia.com/harpidetza

Eskaintza hau
2013ko abenduaren 31n
amaitzen da

**OSKAR ELIZBURU**

Debagoieneko AEK-ko arduraduna Arrasate

UDALAREKIN AKORDIOA
"Hitzarmenari esker, arrasatear guztiek baldintza berdintsuak izango dituzte euskaltegietan matrikula ordaintzeko orduan".

DIRU LAGUNTZEN MURRIZKETA
"Nafarroako gobernuak euskaltegiei diru laguntza osoa kendu izanak zulo handia eragingo dio erakunde guztia".

**AINARA INUNZIAGA**

Lagun Artea-ko arduradun ohia Aramaio

LANA ETA PROIEKTUAK
"Aurrez langabezian egona naiz; beraz, aurten lana eduki izana eta datorren urteari begira proiektu berriak martxan jartzeko lanetan ibiltzea".

ESPAINIAKO BANDERAK
"Espainiako bandera udaltxeko balkoian ikusi beharra. Arra maion ere jarri dute, beste bandera batzuekin batera".

**DIEGO MARTIARTU**

Itzultzailea Arrasate

KATALUNIA
"Kataluniak bere etorkizuna erabakitzeko hartu duen bidea. Euskal herritarrok ere bide hori edo antzekoren bat ibiliko dugulakoan...".

BELDURRA, ARRAZISMOA
"Krisia dela eta ez dela, beldurraren eraginez gure artean zabalitzen dabiren diskurtso arrazista azkenaldiko etorkin guztien aurka".

2013 ONENA & TXARRENA

'Goiena.net'-eko inkesta

Goiena.net-eko erabiltzaileek ere aukeratu dute urteko onena eta txarrena. Guretik hasita, baita Euskal Herrikoa eta mundu mailakoa ere. Hemen emaitza.

DEBAGOIENA**ONENA**

- %32 Atez atekoa jarri izana.
- %15 Atez atekoaren kontrakoak.
- %8 Bidegorri sarea.

TXARRENA

- %40 Fagor Etxetresnen itxiera.
- %20 Atez ateko bilketa ezarri izana.
- %10 Josu Lizarralderi jazarpena.

EUSKAL HERRIA**ONENA**

- %40 Reala Txapeldunen Ligan.
- %12 Elikagaien bankuaren lana.
- %9 Ikurrina sanferminetan.

TXARRENA

- %35 Jazarpn politikoak.
- %25 Euskaltelen agurra.
- %10 Nafarroako Gobernua.

MUNDUA**ONENA**

- %33 Kolonbiako bake prozesua.
- %18 Kataluniako jendartea.
- %11 Herritarren mobilizazioak.

TXARRENA

- %40 Filipinetako hondamendia.
- %17 Eskumako muturrekoen gorakada.
- %12 Erreforma: LOMCE...

PERTSONAIA**DEBAGOIENA**


- %41 Mikel Gonzalez.
- %14 Irati Mujika.
- %13 Markel Irizar.

EUSKAL HERRIA

- %38 Amets Arzallus.
- %22 Xabi Alonso.
- %10 Iñigo Urkullu.

MUNDUA

- %42 Frantzisko aita santua.
- %31 Nelson Mandela.
- %12 Edward Snowden.

**GORKA VALLE**

UDAKo entrenatzailea Aretxabaleta

ARETXABALETARA BUELTATZEA
"Aretxabaletara bizitzera bueltatzea. Bost urte eman ditut kanpoan bizitzen eta pozik bueltatu naiz berriro Aretxabaletara".

FAGORREN ITXIERA
"Inguruan ematen zuen lan guztia kontuan izanda, nahiz eta gehienak birkokatzen ari diren, hori da albisterik txarrena bailararako".

**JOKIN ETXEBARRIA**

Kirol kazetaria Arrasate

AITA IZATEA
"Igor Elortzak bertso batean zioen bere mundua goizeko ordu bietan argitu zela. Gurea irailaren 10eko 10:50ean argitu zen, Telmorekin".

FAGORREN GAINBEHERA
"Fagorren gertatu denak larritu eta haserretu egin nau. Familiarteko eta lagun askok pairatuko duten egoerari buelta eman behar diogu".

**JESUS MARI KALBOETXEAGA**

Sukaldaria Elgeta

BALIOEZ JABETZEA
"Ekonomia egoerak agerian utzi du balioen krisia. Erakunde batzuekiko zalantza sortu da eta elkartasuna hazten ari da".

KRISIAN JARRAITZEA
"Egoerak ez du hobera egin; ondoeza, ezkortasuna, beldurra dago. Eta krisiaren aitzakian, eskubideak murrizten segitzen dute".

Jatetxe Gida



Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55 / www.restaurantelasa.es

Eskaintza

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauetan 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona min).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera(eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria Mas Gastronomía 2009.



Wok Sheng Xing Yuan

Mugarrieta industrialdea 10, C-B pab.
San Andres auzoa • ARRASATE
943 79 90 29 • 629 41 59 58

Gabonetako eskaintza

- Abenduaren 31n ZABALIK!
- Menua 18 € Xanpain kopa barne (edariak ez daude barne)

Eskaintza orokorra

- Itsaski-janak.
- Frijituak.
- Plantxa.
- Sushia.
- Parrilladak.
- Menua, postrea barne.

Animatu eta etorri guregana!



Fagorren ikurra, hesi ostean, Fagor Etxetresnen Arrasateko Garagartza auzoko lantegian.

JAGOBA DOMINGO

2013

eta 2014. urteak

aztergai

Ekonomia, gizarte, politika, kirol eta kultura arloetan 2013ak eman duena errepasatzeko eskatu diegu arlo bakoitzeko Debagoieneko lau adituri. Eta azti-lanak egiteko ere eskatu, eta 2014a izan daitekeena irudikatu dute. Ibarreko, Euskal Herriko eta munduko gai, pertsona eta lekuak nabarmendu dituzte haiek.



EKONOMIA



LANDER BELOKI | MU-KO ENPRESAGINTZA FAKULTATEKO DEKANOA

Krisiak gogor jotzen jarraitu du eta enpresa sinbolikoak itxi dira

DEBAGOIENA

Debagoienean, bereziki gogorra izan da **Fagor Etxetresnen** kasua.

Fagor Etxetresnak ixteak oso ondorio ekonomiko latzak izan ditu, eta krisiaz eta testuinguru orokorraz harantzago doaz, nire iritziz. Izan ere, kooperatiba mundua sinboloa izan da, enpresa egiteko beste modu bat, eta horrez gain, krisia hobeto gainditu ahal izateko enpresa eredu alternatibo bat izan da, eta orain, ikusi da beharbada hala dela, kooperatiba batzuen kasuan behintzat, ondo doazelako eta gai izan direlako krisia saihesteko, baina beste batzuei bete-betean eman die krisiak, eta horrek zalantza sortu du etorkizunari begira, pentsatzen genuelakok kooperatiben eredu indartsuagoa zela krisiaren aurrean, baina ez da nahikoa izan **Fagor Etxetresnak** aurrera ateratzeko.

EUSKAL HERRIA

Euskal Herrian, ekonomiari dagokionez, oso urte gogorra izan da. Langabezia

tasak gora egiten jarraitu du, eta bereziki nabarmena izan da hainbat enpresa itxi dituztela; horietako asko sinbolo bilakatu ziren enpresak ziren, eta, beraz, lerro edo marka bat dago orain arte izan denaren eta aurrerantzean izango denaren artean. Orain arte, ohituta geunden langabezia datu hotzak ikustera, aurpegi-rik ikusi gabe; orain, aldiz, zifrekin urduritu eta beldurtu egin gara, oso altuak direlako; hala, **Euskal Autonomia Erkidegoan**, %17ren bueltan dago momentu honetan langabezia tasa.

Ekonomian, azpimarratzeko berri positiborik ez dago, eta ez nuke ikuspuntu edulkoraturik eman nahi; izan diren albiste onak oso txikiak dira albiste txarrekin konparatuta. Dena dela, solidaritate mekanismoak indartu egin dira; hor dago, adibidez, **Elikagai Bankuen** bilketa. Gizartean barneratuta dagoen solidaritatea indartu egin da; neurri batean, zoritxarrez, baina egoera hain txarra denez, horrek, neurri baten, lagundu egiten du. Baina erakundeak gainezka eginda dabilta, baliabideak murriztzak direlako. ➤

2013

Urte bukaeran, ekonomia adierazleak zertxobait hobetzen hasi dira, eta horrek esperantza txiki bat ematen digu, baina denok beldur handiarekin gaude, horrelako mezuak iraganean entzun izan ditugulako eta gero okertu izan delako berriz egoera. Beraz, galdera ez da horrenbeste noiz irtengo garen krisialditik, baizik eta egunerokoa, gertuan dauzkagunetan hobekuntzak nabarmentzen joatea. Ekonomian, ekoizten ditugun zerbitzu eta proiektuak lehiakorragoak izateko ahaleginean bete-betean jardun behar dugu. Egiten dugun hori hobea den neurrian, lehiakorrago eta baldintza onetan egiten dugun neurrian, merkatuan lekua topatuko dugu.

MUNDUA

Une honetan, nagusiki, **Europako** herrialde batzuek jarraitzen dute krisian. **Hego Ameriketako Estatu Batuetan**, adibidez, hazkuntza tasak interesgarriak dira eta, beraientzat, orain urte batzuetako kontua da krisia, baina Europan, eta bereziki hegoaldean, oraindik gogor jotzen dihardu.

Dena dela, urte bukaeran, badi-rudi **Europako** ekonomiak hoberrantz egin duela, eta enplegu gutxiago suntsitzen dabilela. Kontsumoa ere zertxobait ari da esnatzen, eta **Euro-paz** kanpoko salmentak ere, pixkana-pixkana, hobetzen hasiak dira.

2014

Enpresei eta kontsumitzaileei, konfiantza

Enplegua suntsitzeko eta egoera okertzeko joera eten egingo da, bereziki bigarren seihilekoan. Ematen du hainbat aldagai hobeto joango direla eta kontsumoak ere zertxobait hobera egingo duela. Kanpora ekoizten duten enpresak emaitzak hobetzen ari dira.

Kontsumoa eta inbertsioak Kontsumitzaileen eta enpresen konfiantza maila handitu behar da, horrek ekarriko duelako kontsumitzaileak gehiago kontsumitzea eta, enpresen kasuan, inbertsio gehiago egiten pentsatzen hastea, ekoizteko ahalmena handitu ahal izateko. Beraz, bi elementu horiek klabeak izango dira: enpresen konfiantza sortzea, aurrera egiteko apustua egin dezan; eta, bestetik, konfiantza kontsumitzailearengan ere, kontsumo mailari eutsi ahal izateko eta salmentak hobetzeko.



Mandelaren heriotzaren ostean, herritarrek hari gorazarre. | BALTIMORESUN.COM

GIZARTEA eta POLITIKA



MIKEL LEZAMIZ | SOZIOLOGOA

Mandelaren heriotzak balio pisutsuak jarri ditu indarrean berriro

DEBAGOIENA

Azken urte honetako balorazioa gizarte eta politika ikuspegitik egiteko, ezin utzi ekonomia albo batera. Izan ere, krisi ekonomikoak eragin zuzena izan du ongizatean: okerrera egin du. Eta langabezia ere ezin aipatu gabe utzi. Aurreikusten genuen **Fagor Etxetresnen** egoera urte hasieratik: egun bat jai hartu piezak ez zirelako iristen, eta abar. Horrek azkenean eztanda egin zuen eta eragin zuzena izan du eskualdeko langabezia eta ongizatean. Horixe izan da Debagoiengan aurten izan dugun arazorik handiena. Baina elkartasun balioa ere azpimarratuko nuke. Izan ere, gerora **Fagorretik Mondragon Taldeko** gainerako kideei horixe salatu zaien arren, hasiera batean ahobatezko erabakiz onartu zen diruz laguntza eskaintzea **Fagorri**. Beraz, elkartasunaren balio horrek bizirik irauten duela azpimarratuko nuke.

Politikoki, alderdien artean bakea nagusi izan dela esango nuke, atez atekoak zeresana ekarri duen arren. Urte honetako afera izan da. **Arrasaten**, badirudi akordio batera iritsi direla, eta baita beste toki batzuetan ere. Baina Debagoiengan, bere osotasunean, ez da adostasunik lortu alderdi politikoen artean eta esan

daiteke atez atekoa izan dela alderdien artean harremanak okertzeko eragilea. Badirudi, baina, urak bere onera itzultzen dabiltzala.

EUSKAL HERRIA

Bestalde, bi urte dira **ETA**k armak utzi zituela. Uste dut alderdi bat edo bi kenduta, gaineko guztiak –baita PSOE erabake prozesuan urratsak egiteko prest daudela, baina **Madril**ek oztopoak jarritzen jarraitzen du. Ondorioz, prozesua aurrera doa, baina pentsatzen genuena baino polikiago. Hala ere, uste dut horrexek, prozesuak aurrera segitzeak, eman diola gizarteari poztasuna. Aurrera begira, arazo nagusi barik jarraituko dugula deritzot.

MUNDUA

Munduko zati batek gerran jarraitzen du oraindik. Esaterako, hor dugu **Siriako** gatazka. Baina aurtengo urtean hainbat albiste positibo ere egon dira. **FARC**en eta **Kolonbiako Gobernuaren** arteko bake prozesua aipatuko nuke.

Hego Amerikan, aipagarria da **Txilek** azken hauteskundeetan hartu duen erabakia: ezkererantz abiatu da. Horrenbestez, Hego Amerika ia osoa ezkertiarra da eta politika sozial indartsuagoak bideratzen hasita dago.

Mandelaren heriotza ere, gertakari negatiboa izan den arren, positiboa ere izan da era berean. Izan ere, gizon handi bat hil da, baina bere heriotzak bere balioak eta bere gizontasuna eman ditu ezagutzera berriro. Horrenbestez, ez zuen on bizirik zegoenean soilik egin, hil denean ere ontasuna eman dio munduari: elkartasun balioak, hurbiltasuna, ongizatea guztientzat, berdintasuna zuri eta beltzen artean... Hil ondoren ere aspektu positiboak ekarri ditu.

Kataluniaren hordagoa ere ezin aipatu gabe utzi. Une honetan, guztiok gaude **Eskoziari** eta **Kataluniari** begira. Erreferendum prozesuak iragarri dituzte eta oso garrantzitsuak izango dira bai **Euskal Herriaren** eta baita munduan dauden onartu gabeko herrialde askorentzako ere. Ikusi egin behar zer gertatuko den. Hori, baina, datorren urterako utzi beharko dugu.

2014

Batasuna areagotuko da bailaran eta munduan

Elkartasuna eta batasuna izango dira datorren urteko gakoak, bai gurean eta baita mundu mailan ere. Hala, horiek izango dira nabarmenduko diren balioak gizartearen. Politikan, berriz, Hego Amerika kontuan izan beharreko eredu izango dela deritzot.

Alderdien arteko batasuna Euskal Herriari dagokionez, alderdi politikoen arteko batasuna indartzen joango dela uste dut, Kataluniako urratsei jarraiki. Eskoziako eta Kataluniako erabakiak ere oso garrantzitsuak izango dira bai Euskal Herriak eta baita munduko beste herrialde batzuek ere, adibidez, Kosovok, aurrera egiteko. Bestalde, egoera politikoa normaltzen joango da euskal alderdien eta Madrilaren artean; Kataluniari kenduz, guri zerbait emango digutelako. Otegi eta

lagunak laster kanpoan izango direlakoan ere banago.

Bestalde, Fagorrek langileek lana aurkituko dute eta urak baretzen joango dira. Are gehiago, jendea berriro hasiko da kooperatiben arteko elkartasunean sinesten. Horrek gizartearen bizipozean eta ongizatean eragin zuzena izango du.

Hego Amerika eredu

Bake prozesuei dagokionez, hobera egingo dutela uste dut, esaterako, Siria edo Ekialde Hurbilean. Bestalde, Hego Amerika erreferente bilakatzen dabilela esango nuke. Erreferente politikoki, sozialki eta ekonomikoki. Horrenbestez, datorren urte oso interesgarria izango dela uste dut, Hego Amerikako herrialdeko guztietan elkartasun balioak nagusitu eta batasuna izango da-eta. Gizarte bidezkoagoak eratuz eta bultzatuz, herritar guztien onura bilatuko da.

Ez zaitez galdu.



EROSKETAK DEBAGOIENEAN EGIN!

... eta hartu parte
20 euroko
100
erosketa-bonuren
zozketan



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA





Santamas kroseto emakumezkoen podiuma. | JOSETXO ARANTZABAL

KIROLA



INES AZPIAZU | FORD MUGARRI ARRASATE ESKUBALOI TALDEKO PRESIDENTEA

Herri izaera berreskuratu behar dugu, eta kirola erreminta ona da

DEBAGOIENA

Urteari kirol ikuspuntutik errepasoa egiteko orduan, gertutik jarraitzen dudana gai bati helduko diot, eta **Ford Mugarri Arrasate** eskubaloi taldea kokatuko dut alde positiboan. Izan ere, gure taldeak egin duen balentria azpimarratzekoa da, **Nazional Mailara** igotzea lortu ostean.

Eta gertaera horrek gure kluberako, Arrasateko herrirako eta bailara oso-

rako irudikatzen duena nabarmentzekoa dela uste dut: aurrekontu txikiarekin, eta profesionalak izan barik, baina talde barruan konpromiso eta adiskidetasuna landuz edozein helburu lor daitekeelako. Hau da kirolaren miraria.

2013

EUSKAL HERRIA

Kirol mundura sartzen dabilten emakumezko horiek guztiak omenduko nituzke, bai bakarkako kirolean, baita taldekoan dabiltzanak ere. Izan ere, emakumezkoen presentzia geroago eta handiagoa da gizarteko arlo guztietan, eta kirolean ere aurrerapauso handiak ematen gabiltza.

Urte hauetan guztietan jabetu naiz emakumeok kirolarekiko erakutsi dugun konpromisoa gizonezkoena baino txikiagoa izan dela: ikasketengatik, familiarengatik, lagunengatik... Motibo horiek sarritan emakumezkoa bultzatu izan dute kirol praktika alde batera uztera. Horregatik, geroago eta emakumezko gehiago ikustea kirola egiten harro egoteko modukoa da. Eta aurrerapauso horretan, euskal gizartea, eta Euskal Herriko emakumeak, aurretik doaz.

MUNDUA

Nelson Mandelaren heriotzak hutsune handia utzi du, gizon humanista batek utzi gaitu, pertsona moduan askorendako eredu zena. Eta hark inork baino hobeto ulertu zuen kirolak ze indar izan dezakeen.

Hain zuzen, kirolak eman dezakeen indarra erabili zuen munduko lurralderik bananduena elkartzeko. Politikaren bitartez apurto ez zituzten hormak apurto zituzten kirolaren bidez, eta sinismen eta kolore ezberdineko jendea batu zuen helburu komun baten alde.

Alde horretatik, guregandik gertu ditugun politikari batzuek uste dute kirolak jendea banatzeko baino ez dela balio, baina **Mandelaren** neurriko pertsonak urteetan erakutsi digute ezetz, hori ez dela horrela.

2014

Arrasate erreferente egin zuten balioak errekuiperatzera

Arrasate munduko erreferente egin zuten balio kooperatibistak berriro ere berreskuratzea izango litzateke nire nahia, eta uste dut kirola oso erreminta aproposa dela horretarako. Solidaritateak eta lankidetzaren harremanek izan behar dute gure etorkizunerako gakoak.

Borondatezko lanera animatu
Hala, datoren urteari begira herritar guztiak animatzen ditut borondatezko lanera. Parte har dezatela gure herriko kirol, kultura eta gizarte mailako beste edozein elkartetan.

Politikarien babesa
Arlo beretik jarraituta, gure herriko gobernariak herri mailako kirolaren aldeko jarrera erakusteko eskatuko nieke. Eta ez aldeko jarrera erakusteko bakarrik, baita horien alde egiteko ere, behar diren baliabideak eskainita.

KULTURA



IKER BARANDIARAN | KAZETARIA

Ekimen herrikoietan goraiatzekoa da bailaran egindako lanak

DEBAGOIENA

Oso originala iruditu zitzaidan **Bergarako artistek** herria biziberritzeko egindako artista-ekintza; oso eredugarria. Arrasaten, ildo antzekotik, oso interesgarria deritzot **Arrasate Zientzia Elkartek** eta **Zuztarrak Errotuz** taldeak, nor bere aldetik, herriko historia jasotzeko egindako lanari. Aipatzekoa da azkenak, **Zuztarrak Errotuzek**, kaleratu berri duen liburua. Bertan ez da ikerketa sakon edo berri-rik agertzen, baina edozein arrasatearrek izan beharko lukeen oinarritzko liburua atera dute, oso prezio merkean, gainera.

Musikan eta ekimen herrikoietan, goraiatzekoa da Arrasateko **Kooltur Ekintza** taldeak ostegunero egindako lana; baita **Bergarako Gazte Asanbladak** burutu duen **Ostiralak kartzelan** programa ere. Taldeetan, nabarmena da **Los Galerna** talde instrumentalaren bilakera. Pozgarria da baita ere Eskoriatzako **Lucas Prest** taldeak hardcorearen alde egindako lana eta modetatik aparte dagoen **El Desv n del Macho** talde errepikaezina itzultzea.

EUSKAL HERRIA

Arreta piztu dit Mungiako **Belako** taldeak. 19 urte eskasekin, post-punka landuz eta elektronika posearekin, kontzertu oso indartsuak ematen ditu. Ospeak kaltetzen ez baditu, emango dute zeresana.

MUNDUA

Aipagarria da **Propaganda Riot**: Valentziako **Los Chicos del Maiz** eta Madrillgo **Habeas Corpuseko** kidez osatutako proiektu interesgarria, hip-hop, hardcorea, rocka eta hitz indartsuak batzen ditu.

Madrid aldeko bi kazetarik **Kortaturen** **El estado de las cosas** diskoa abiapuntu hartu eta taldearen historia eta 80ko hamarkadako giro sozio-politikoaren errepasatu dute oso liburu argigarrian.

Lou Reeden heriotza ere albiste izan da. **Velvet Undergrounden** eta bakarka hasieran egindakoak oso interesgarriak iruditu arren, baditu alderdi ez hain motibagarriak. Duela 8-10 urte zuzenean ikusi nuen, eta beste *handi* askoren kontrara, kontzertuak ez zidan ezer aportatu.

2013



Mungiako Belako taldea, urteko errebelazioetako bat. | BELAKO

2014

Disko berriak, itzulerak eta osasun arazoak

2014ari begira, irrikan nago **Screamers and Sinnersen** diskoa entzuteko; eta taldea abesti horiek defendatzen zuzenean ikusteko. Jakin dut **The Young Gods** talde suitzarra bueltan dela. Orain dela hamarkada batzuk Bergarako **Jam aretoan** birritan taldea ikusi genuenok irrikan gaude berriro zuzenean ikusteko. Ea bisitarik egiten duten!

Monty Phytönen itzulera
Monty Phytón umorista ingelesak agertokietara itzuliko direla iragarri

dute. Segundotan saldu dituzte lehenengo emanaldietarako sarrera guztiak. Umore surrealisten maisuak dira, parekorik ez dutenak.

Motörhead
Motörhead taldeko **Lemmy** abeslariaren osasuna ez da espero bezain ona. Ez naiz mitomanoa, baina ikaragarria da talde horrek (eta, azken finean, pertsona horrek) rockaren alde egindakoa. Oso aintzat hartzekoa.

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behe

620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11

943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

NAGUSIENTZAKO LAGUNTZA ZERBITZUA

SAROAN

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 19 – 8. bulegoa

Tel.: 943 10 90 80 - www.saroan.com

NUTRIZIOA

LOREA ARANBURU (MEDIKU NUTRIZIONISTA)

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 72 16

Bergara / Ramon M. Lili 2, behe / 943 76 59 39

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

ARKAITZ IRAZABAL PSIKOLOGO KLINIKOA

Bergara / 646 06 28 18

arkaitz.irazabal@gmail.com

BEITIALARRANGOITIA ALZELAI, IONE

Arrasate / Uarkape kalea 14, behe / 657720049

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe

943 76 11 38 / 639 23 57 53.



SUKALDEA

5.800€

MUNTAIA eta BEZa barne

- Sukaldeko altzariak
- Etxetresnak
- Indukzio-plaka
- Labe herdoilgaitza, funtzio askotarikoa
- Ke-kanpai herdoilgaitza
- Garbigailu integratua (8 kilo eta 1.200 b/min)
- Hozkailu herdoilgaitza
- Mikrouhin-labe herdoilgaitza
- Ontzi-garbigailu integratua
- Neolith-eko sukalde-gainekoa
- Harraska

IMB ESTUDIOA

BARNE DEKORAZIOA
PROIEKTUAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA
ALTZARIAK

**zorionak eta
urte berri on!**

ibargarai 4. 2050 bergara - Tel./Faxa: 943 763737 - imb_estudioa@hotmail.com